



inmigrazioari buruzko euskal plana

2003-2005





INMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL PLANA 2003-2005

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Inmigración

AURKEZPENA	8
SARRERA	14
I – DESKRIPZIO-ZATIA	18
1.- Inmigrazioaren errealitatea	18
1.1) Inmigrazioa eta Atzerritartasuna	18
1.2) EAEko inmigrazioa	18
2.- Egungo marko arau-emaile eta politikoa: azterketa kritikoa	51
2.1) Eskumen-banaketa	51
2.2) Nazioarteko marko politiko eta arau-emailea	53
2.3) Europar Batasunaren marko politiko eta arau-emailea	55
2.4) Estatuaren marko politiko eta arau-emailea	55
2.5) Autonomia Erkidegoaren marko politiko eta arau-emailea	58
II – DEFINIZIO-ALDERDIA	62
1.- Planteamendua eta oinarri ideologikoak	62
1.1) Inmigrazio-kontzeptua	62
1.2) Gizarteratze-kontzeptua	63
1.3) Herritartasun-kontzeptua	64
1.4) Euskal Inmigrazio Politikaren kontzeptua	65
2.- Helburu Nagusia	67
3.- Printzipio gidatzaile funtsezkoak	67
3.1) Eskubide-berdintasuna	67
3.2) Erantzukizun publikoa	68
3.3) Gizarte parte-hartzea	69
4.- Printzipio gidatzaile operatiboak	70
4.1) Osotasun-printzipioa	71
4.2) Prebentzio-printzipioa	71
4.3) Normalizazio-printzipioa	71
4.4) Deszentralizazio-printzipioa	71
4.5) Koordinazio-printzipioa	72
4.6) Ebaluazio-printzipioa	72
5.- Ebaluaziorako helburuak eta erreferentziak	73
5.1) Planaren helburuak	73
5.1) Ebaluazio-adierazleak	77
III – ZATI OPERATIBOA	82
1.- Lantze eta instrumentazio prozesua	82
2.- Esku-hartze arloak	84
2.1) Arlo instrumentalak	84
2.2) Arlo funtsezkoak	85
3.- Norabideak	88
3.1) Erakunde Antolamenduko arloa	88
3.2) Informazio-arloa	89
3.3) Berme Juridikoen arloa	89
3.4) Parte-hartze Politikoko arloa	89
3.5) Lan-arloa	90
3.6) Gizarteratze eta Gizarte Baliabideen arloa	90
3.7) Osasun-arloa	91

3.8) Etxebizitza-arloa	91
3.9) Hezkuntza-arloa	92
3.10) Kulturartekotasun-arloa	92
3.11) Esku-hartze Osagarriko arloa	92
3.12) Sentsibilizazio-arloa	93
3.13) Lagundutako garapeneko arloa	94
4.- Ekintza-neurriak	95
3.1) Erakunde Antolamenduko arloa	96
3.2) Informazio-arloa	108
3.3) Berme Juridikoen arloa	118
3.4) Parte-hartze Politikoko arloa	124
3.5) Lan-arloa	130
3.6) Gizarteratze eta Gizarte Baliabideen arloa	142
3.7) Osasun-arloa	150
3.8) Etxebizitza-arloa	158
3.9) Hezkuntza-arloa	162
3.10) Kulturartekotasun-arloa	174
3.11) Esku-hartze Osagarriko arloa	184
3.12) Sentsibilizazio-arloa	202
3.13) Lagundutako garapeneko arloa	212
 IV – AURREKONTUA	 222
 V – ERANSKINAK	 226
1) Ebaluazio-adierazleak	226
2) Lotura Helburuak – Norabideak	236
3) Parte-hartze soziala eta instituzionala	240



Aurkezpena



Aurkezpena

Lehen Inmigratioari buruzko Euskal Planak, pertsona guztiek euren eskubideak eta betebeharrak berdin baliatzeko eta aintzat hartzeko aukeraren mesedetan, neurri zehatzak bildu eta horiek bermatzeko egitura eta baliabide berriak sortzea planteatzen duen arren, jakin badaki Europar Batasuna eta Estatuak politika murriztailea aplikatzen ari direla, eta gure Erkidegora datozen etorkinak ahulezia-egoeran daudela. 14/2003 Lege Organikoak azararen 20koa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko urtarrilaren 11ko 4/200 Lege Organikoa aldatzen duena, 2003ko azararen 21ean argitaraturikoak ez die erantzunik ematen etorkin atzeritarrak gure herrialdera iristeak eragindako premiei.



Aldi berean eta modu paradoxikoan, errealitateari egin behar diogu aurre: hainbat jatorritako pertsonak bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri eta hirietan, horietako batzuk urteak daramazkiela euskal gizartearen orainaren eta geroaren alde lanean, eta beste batzuk iritsi berriak direla, normaltasunaren ildoa sartzeko irrikaz.

LBizi diren gizarteko kide izan nahi dute etorkinek, eta lan-merkatuaz gain maila publiko eta pribatuko gainerako eremuetan ere parte hartu nahi dute. Inmigratio-plan batek bideak eskaini behar ditu gaineratze horretarako, bidea eskaini behar die etorkinei guztien geroa eraikitzeke euren ekarpena egin dezaten.

Eskubide eta betebeharrei dagokienez guztiak berdinak garelako uste sendoa du abiapuntutzat Plan honek, gizarte gehienak aintzat hartzen duen balioa, alegia. Berdintasun hori egiazkoa izateko oztopoak kentzeko botere publikoek duten erantzukizuna gehitu behar zaio horri. Atzeritartasun-araudiaren ondoriozko egoera juridikoak uztartzea da kontua, gaur egungo zein geroko aldaketak bilduko dituen, etorkinen erabateko gizarteratzea lortzeko ekintzen ustiapena tarteko. Horretarako, bultzatu ahal izango diren neurriak egokitzeko beharrezko egokitzapenak egitea ahalbidetzen duten mekanismoak biltzen ditu, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioei esleituriko eskumenak baliatuta, guztiek bereizketarik gabe bizitza duinerako aukera izan dezaten eta euskal gizartearen osaketan modu aktiboan parte hartu ahal dezaten. Helburu hori lortzea izango da betiere erronka nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak estatuko eta estatuz gaindiko instantzietan duen parte-hartzeari

dagokionez, atzerriartasunaren legezko markoan aldaketak bultzatzeko, batez ere 4/00 legearen azken erreformaren ondoren.

Etorkinek parte-hartze politikoa izateko egiturak sortzearen aldeko apustua egiten dugu. Gaur egun egitura horiek bultzatzen badira ere, lagun horiek euren interesak eta lehentasunak kudeatzeko aukeran parte hartzeko duten eskubidea aintzat hartu behar da, baita euren espazio propioak ere, komunitate guztiarentzako ere oso interesgarriak izango direla kontuan hartuta. Gizarteratze-prozesuan nahasturikoek erabaki eta kudeaketa maila guztietan parte hartzea eskatzen du kultura arteko gizarteak. Gerora aldaketa instituzionala ahalbidetzeko ekin behar zaio gogoeta horri, etorkinek eraginpean hartzen dituzten erabaketan eta interesen kudeaketan parte hartzeko moduan. Gizartea zein Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa errotik jabetu behar dira herritar berriekin bizi garela, eta bereizketarik gabeko egiturazko aldaketa ahalbidetu behar dela, hori baita kultura arteko gizartea lortzeko modu bakarra.

Inmigrazioari buruzko Euskal Planean ebaluazioak duen garrantzia Planaren helburuak nork bere gain hartu dituen erantzukizunekin eta inmigrazio-arloan estrategia propioa eratzea planteatzen duen ereduekin dago lotuta. Horretarako ezarri diren tresnak oso garrantzitsuak dira modu errealistan aurrera egiteko, esku hartzen duten aldagai guztiak kontuan hartuta. Ebaluazio kualifikatua garatzeko eta neurriak zenbateraino betetzen direneko jarraipen zehatza egiteko konpromisoak gizarteratze-prozesuan eragile guztiek duten inplikazioa baloratzea ahalbidetu du.


Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio guztien erantzukizuna da inmigrazio-fenomenoari arreta eskaintzea, gure erkidegoko herritar guztiei eman beharreko arreta baita. Hori dela-eta, baliabideak behar bezala kudeatzea ahalbidetzen duten koordinazio-sistemak ezarri behar dira. Egungo mekanismoak ere egokitu beharko dira, eta beste batzuk aurreikusitako inmigrazio-fenomenoaren zeharkakotasuna dela-eta. Kokapena, etorritakoen kopurua, euren profila eta, azken batean, gure Udalerrietan bizi diren etorkinen errealitatea ezagutzea ahalbidetuko duten neurriak biltzen ditu informazio-arloak. Etorkinek herri batzuetan edo besteetan izango duten kontzentrazio desberdinak Udalerrietarako esleipen ekonomikoen banaketa egokia behartuko du.

Lehen Plan honen meritua ekintza publikoaren eraketan gako berri bat sustatu izana da, inmigrazioaren errealitatea sartu baitu gure erkidegoaren politika publikoan. Aztertu beharreko premia berriez jabetu gara, eta errealitate hori kontuan hartu beharra dago migrazio-gaiarekin loturiko erabaki guztietan. Udalerrien artean baliabide ekonomikoak banatzea lehentasunezkoa da horien artean. Dimentsio askotarikoa izateak kudeaketa publikoko politika eta sistemetan du eragina, eta, hortaz, bizikidetzan eta herritarren harremanetan. Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren helburuek egituraketa berri horretarako aldaketak eta jarduerak biltzen dituzte. Horretarako behar diren adostasuna eta egokitzapenak hura eskuratzea eta iraunaraztea lortuko dute.

Globalizazioaren seinaleen artean egiturazko aldaketak ez ezik jarrera-aldaketak ere eskatzen dituenetako bat dugu inmigrazioa, betiere lagun guztiak normaltasun instituzional eta sozialarekin barne hartzeko. Eusko Jaurlaritzaren zein Aldundi eta Udalen jarduteko ahalmena hobetzea da erronka horren beste alderdietako bat, nork bere gain erantzukizunez hartu beharrekoa euskaldunen geroko belaunaldien ongizatearen mesedetan, euren familien jaioterria edozein dela ere.

Stua. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburua
Javier Madrazo Lavín jauna.







Sarrera



Sarrera

Eusko Legebiltzarrak 2000ko urriaren 20an eginiko bilkuran harturiko Akordioak inmigrazioarako erkidegoko plana lantzea eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari. 2001eko uztaileko Gobernu Akordio berak ere biltzen du bultzada politiko hori, euskal inmigrazio-politika egituratuko duen plangintzarako konpromisoa barne hartzen baita bertan. 2002ko apirilaren 15ean Gobernu Kontseiluak PNV/EAJ-EA-IU/EB koalizio-Gobernuaren Planen, Programen eta jarduera esanguratsuen Egutegia onartu zuen.

Bereizitako hiru zatitan egituratzen da dokumentu hau. Lehen zati edo deskribapen-zatiak EAEko inmigrazioaren azterketa orokorra egiten du funtsezko joerei dagokionez, baita fenomeno honen inguruko marko politiko eta arau-emailearena ere.

Bigarren zatiak edo definizio-zatiak Planaren premisa ideologiko nagusiak barne hartzen ditu. Hainbat funtsezko elementuren ikuskerak jakina hartzen du abiapuntutzat planak, esate baterako inmigrazioa bera, gizarteratzea, herritartasun-kontzeptua edo euskal politikarena. Behin Planaren helburu nagusia ezarrita, printzipio gidatzaileak deskribatzen dira, hartu beharreko ekintzen funtsezko edukia osatuko dutenak zein EAEko erakunde publikoen jarduteko modua bideratuko dutenak.

Azkenik, hirugarren zatian, eremu operatiboa barne hartzen da. Plana aplikatzeko metodologia deskribatzen da bertan, eta inmigrazioari dagokionez izango den jarduera publikoak egituratuko dituen esku hartzeko eremuak edo arloak definitzen dira. Eremu tematiko horiek bideratzen dituzten norabideak barne hartzen dira azken zatian, horiek betetzeko inplikaturiko euskal erakunde publikoek neurri zehatzak hartzea dakarrela kontuan hartuta.

Orokortasun-bokazioarekin jaio da Inmigratioari buruzko Euskal Plana, funtsezko alderdiari zein alderdi instrumentalari dagokionez. Izan ere, migrazio-prozesuen behar bezalako kudeaketa lortzea da gizarte garatuen erronka nagusienetakoa. Epe ertain eta luzean aurreikusi beharreko epe honek gure gizartearen funtsezko alderdiak hartzen ditu eraginpean, eta giza eskubideekiko errespetu orokorra bereziki. Hori guztia dela-eta, arlo horretan arrazoizko eta bidezko politikak arduraz hartzea komeni da, gizarte eta politika arloko adostasun handienarekin, eta inplikaturiko instantzia publikoen esku-hartzeak koordinatu eta integratzeko bokazioarekin, baita horiek gizarte zibilean bertan koordinatu eta integratzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek hainbat eremutatik (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak...) erantzun diote jada inmigrazioari. Inmigrazioari buruzko Euskal Planak neurri horiek guztiak biltzen ditu, eta berriak bultzatuko ditu kultura arteko gizarterako bidean.





Deskripzio-zatia



Deskripzio-zatia

1.- INMIGRAZIOAREN ERREALITEA

1.1) INMIGRAZIOA ETA ATZERRITARTASUNA

Hegoaldeko herrialdeetatik Iparraldeko Estatu garatuetarako inmigrazio-fenomenoa da egungo agenda politikoaren gai nagusietako bat. Migrazio-prozesuak eta biztanleria-mugimenduak, nazioartean zein barne-mailan, bata bestearen segidako gertakaria izaten dira, eta hori gertatzea moldagarria izan baliteke ere, ezin da saihestu. Europako gizarteetan, euskal gizartea tarteko, inmigrazio-fenomenoa eta horren zuzeneko ondorio den atzerritartasuna errealitate atzeraezin bezala agertzen dira, eta epe luzean pentsaturiko kudeaketa kolektiboa eskatzen dute. Mugikortasuna elementu positibotzat hartu behar da gure Erkidegorako. Garapen ekonomiko eta demografikorako mesedegarri da inmigrazioa, eta kultur aberastasuneko iturri ere bada. Esku hatzen duten alderdi guztien arteko konpromisoa behar da gure gizartearen aurrerabidea ahalbidetzen duen beharrezko gizarte-kohesioa lortzeko.

1.2) EAE-KO INMIGRAZIOA

1.2.1.- Bolumena: fenomeno berri samarra eta hazten ari dena

Euskal Gizartea emigratzailea izan da aspalditik. Dena den, XIX. mendearen amaieraz geroztik, estatu espainoleko etorkin ugari iritsi ziren Euskal Herrira. XX. mendean, bi prozesuak gertatu ziren aldi berean, euskal emigrazioa kanpoalderantz (Ameriketara batez ere) eta inmigrazio espainiarra Euskadira; beste nazionalitateetatik etorritakoak, berriz, oso gutxi ziren garai hartan. Laurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera hasiko da, gutxienez aipatzeko moduan nabaritzen, Hegoaldeko herrialdeetatik datorren inmigrazio-joera, batez ere Afrikatik eta Latinoamerikatik.

Hala eta guztiz ere, EAEn finkaturiko atzerritarren bolumena eskasa da, termino kuantitatibo zein konparatiboetan. EAEk bere biztanlerian duen atzerritarren portzentajea Europar Batasuneko batez bestekoa baino dezente txikiagoa da, baita estatu espainoleko batez bestekoa baino dezente txikiagoa ere. Dena den, nahiz eta ez den ahaztu behar egungo inmigrazioaren bolumen mugatuaren abiapuntua, azken urteotan **prozesu honen bizkortzea** izan dela adierazi behar da, eta atzerritar jatorriko biztanleria oraindik oraineko baino nabarmen handiagoa den portzentajeaz hazi da.


1. Koadroa

Inmigrazioak estatu espainolean eta eae-n izan duen bilakaera berria (egoitza-baimena duten atzerritarrak).

URTEAK	ESTATUA	EAE	EAE/ESTATUA %
1986	293.208	7.675	2,6
1988	360.032	10.714	3
1990	407.647	13.169	3,2
1992	393.100	10.935	2,8
1994	461.364	12.262	2,7
1996	538.984	13.135	2,4
1998	719.647	16.995	2,4
2000	895.720	18.822	2,1
2002(*)	1.324.001	24.201	1,86

(*) Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002

2. Koadroa

EAE-n bizi den atzerritar-kopuruaren bilakaera, 1996 - 2002 urteak

(*)Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002

3. Koadroa

EAE - Estatu konparazio-lana: egoitza-baimena duen atzerritar-kopuruaren bilakaera, egoitza-erregimenaren arabera (EAE 1999-2002)

	1999(*)		2002(**)				INCREMENTO					
	EAE		ESTATUOA		EAE		ESTATUOA		EAE		ESTATUOA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Guztira	18.622	100	801.329	100	24.201	100	1.324.001	100	5.579	29	522.672	65
Komunitate-erregimena	8.250	44,3	312.518	39	11.989	49,53	826.956	62,5	3.739	45,32	514,438	24
Erregimen orokorra	10.372	55,7	488,811	61	12.212	51,47	497,045	37,5	1.840	1,75	8.234	-24

(*) Iturria: EGAILAN . 2002ko martxoa

(**)Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002

1.2.2.- Jatorria: fenomeno plurala eta askotarikoa

Tradizioari jarraiki, gehienbat jatorri europarra duen atzerriko biztanleria bizi izan da Euskadin. Dena den, 1998az geroztik, beste kontinenteetako lagun-taldeak europarra gainditu du, eta haien aldeko tarte geroz eta handiagoa da denborak aurrera egin ahala. Europar Batasuneko beste herrialdeetako nazionalitatea dutenak hartuta, pisu demografikoaren alderanzketa are gehiago nabarmentzen da, horien kopurua gutxitu egin baita azken hiru urteotan, eta gainerako Europatik eta beste kontinenteetatik etorritakoena, berriz, handitu.

Atzerritarrek euskal gizartean duten presentzia geroz eta zabalagoa dela esan nahi du horrek, euren jatorri geografikoari dagokionez. Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikatik datorren multzoa talde europarrarekin parekatuta dago oinarrian;

4. Koadroa

EAE-ko egoiliar atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera (1999 – 2002)

	EAE	
	1999(*)	2002(**)
Espazio Ekonomiko Europarra	8.249	7.092
Europako gainerakoa	1.043	1.440
Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika	4.060	8.552
Amerikako gainerakoa	801	519
Afrika	3.147	4.883
Asia	1.248	1.648
Ozeania	74	55
GUZTIRA	18.622	24.201

(*)Iturria: Egailan.

(**)Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002.

Afrikatik datorren lagun-taldeak, berriz, garrantzi handia hartu du, eta tarte dezentera Asiakoa datorkigu. Dena den, talde geografiko handi horietan kultura, hizkuntza, erlijio eta soziolinguistika arloko jatorri oso desberdinak biltzen direla hartu behar da kontuan; inmigrazioak Euskadin duen izaera geroz eta askotarikoagoa indartzen dute, eta bide batez euskal gizartearena berarena

Datu guztien arabera inmigrazio-prozesuak nolabaiteko bizkortzea izango du gure **Erkidegoan**, batez ere **Europakoa ez dena**, nahiz eta oraindik parametro dezente txikiak ditugun ez-nazionalen gure gizartean duten presentziari dagokionez, gure inguruneko gainerako herrialdeekin alderatuta

5. Koadroa

EAE - Estatua konparazio-lana: biztanleria atzeritarraren portzentaje-banaketa jatorri geografikoaren arabera


	EAE		ESTATUA	
	1999	2002	1999	2002
GUZTIRA	18.622	24.201	801.329	1.324.001
Espazio Ekonomiko Europarra	44,3	34,5	38'9	27,1
Europako gainerakoa	5,6	5,3	6,2	8,6
Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika	21,8	32,7	17,8	29,3
Amerikako gainerakoa	4,3	2,3	2,2	1,2
Afrika	16,9	18,2	26,4	26
Asia	6,7	6,7	8,3	7,7
Ozeania	0,4	0,3	0,1	0,1
Aberrigabeak	0	0	0,1	0

1.2.3.- EAE-ko banaketa geografikoa eta demografikoa

Etorkinen taldeak EAEn bertan duen banaketa geografikotik begiratuta, gehienak hiri-zonetan bizi direla ikus daiteke, batez ere hiru lurralde historikoetako hiriburuetan edo dagozkien metropoli-barrutietan..

6. Koadroa

Jatorrizko estatu nagusiak




Iturria: Barne Ministerioa. Atzerritarren urtekari estatistikoa

Hiru lurralde historikoen arteko aldeak oso nabarmenak ez diren arren, Gipuzkoa dugu jatorri europarreko inmigrazio handiena duen lurraldea, eta Araba eta Bizkaiarekin konparatuta latinoamerikarren portzentaje dezente txikiagoa duena. Bizkaiak eta Arabak antzeko portzentajea dute Ameriketako etorkinei dagokienez, nahiz eta Araban biztanleria afrikarraren pisua handiagoa den europarraren kaltetan.

1.2.3.1. Biztanleria atzerritarren banaketa lurralde historikoen arabera

7. Koadroa


Inmigrazioaren banaketa lurralde historikoen arabera.
Konparazio-lana lurralde historiko bakoitzaren pisu demografikoarekiko (egoitza-baimena duten atzerritarrak, 2002. urtea)



Iturria: Barne Ministerioa: 2002ko balantzea atzerritarrei buruz; Estadistika Institutu Nazionala; Egailan)

8. Koadroa

Egoitza-baimena duen biztanleria atzerritarren portzentaje-banaketa jatorrizko kontinentearen eta lurralde historikoen arabera, 2002. urtea



Iturria: Barne Ministerioa: 2002ko balantzea atzerritarrei buruz; Egailan)


1.2.3.2. Banaketa sexuaren arabera

Beste zenbait aldagai demografikori dagokionez, bi sexuak orekatuta daude inmigrazio-taldean. Dena den, gizonen eta emakumeen proportzioak gorabehera handiak ditu jatorri-zonaren arabera. Gizonek pisu erlatibo handiagoa dute Afrikako

kontinentetik etorkinen artean, Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikatik etorritakoekin gertatzen ez den bezala.

9. Koadroa

Egoitza-baimena duten atzerritarren banaketa ehunekotan emana, jatorri-kontinentearen eta lurralde historikoaren arabera (2002. urtea)



Iturria: Barne Ministerioa. 01-12-31ko datuak

1.2.3.3. Banaketa adinaren arabera

Adinari dagokionez, tarteko adin-zerrendan dago biztanleria etorkin gehiena. EAEn bizi den atzerritarren erdia gutxi gorabehera 25 eta 40 urte bitarteko zerrendan dago. Arian-arian, nolabaiteko garrantzia hartzen ari da familia-biltzearen dinamika, eta geroz eta adingabe gehiago gaineratzen dira gure gizartera horren arabera. Euskadin jaiotako bigarren belaunaldia ere sendotzen hasi da, oso geldo bada ere.


1.2.3.4. Konparazioa eae-ko biztanleria-egiturarekin eta gerorako proiektzioak

EAEn bizi den biztanleria atzerritarren adinaren batez bestekoa 32 urtetan kalkulaturik dagoela nabarmendu behar da, normalean bertako biztanlerian urrirenak diren adin-zerrendetarako lagunen ekarpen handiaren adierazgarri.

Ilido horretan, 2010. urterako aurreikusitako bertako biztanleriaren bilakaera-proiektzioek joera hori areagotu egingo dela adierazten dute, eta saldo negatiboa du 5 - 34 adin-tartean.

10. Koadroa

EAE-ko egoiliar atzerritarrak, lurralde historikoaren eta adin-tartearen arabera




Iturria: Barne Ministerioa

Ildo horretan, inmigrazioaren fenomenora hurbiltzeko hainbat parametro kontuan hartzea (injekzio demografikoa, eskulana ziurtatzea eta abar) ikuspegi murriztailea eta instrumentala bada ere, EAEko migrazio-fenomenoaren azterketaren dimentsioetako bat biztanleria-egituren osagarritasuna dela kontuan izatea komeni da.

11. Koadroa


Biztanleria-piramidea EAE 2002. urtea



Iturria: Eustat, Biztanleria Proiektzioak

12. Koadroa


Biztanleria atzerritarren piramidearen aurreikuspena 2001.urtea



Iturria: Eustat, Biztanleria-errolda, 2001eko maiatza

13. Koadroa

EAE-ko biztanleria atzerritarren piramidearen aurreikuspena 2010. urtea



Iturria: Eustat, Biztanleria Proiektzioak

14. Koadroa

2002–2010 Denboraldirako aurreikusitako biztanleria-saldoa**Bertako biztanleriaren saldoaren proiektzioa 2002–2010 (adin-tarteen arabera)**

	Biztanleria 2002	Biztanleria 2010	Saldoa
5 eta 19 bitartean	340	336,3	-3,7
20 eta 34 bitartean	484,5	370	-114,5
35 eta 54 bitartean	620,3	644,1	23,8
55 eta 64 bitartean	234,6	266,7	32,1
65 eta gehiago	381,1	421,9	40,8

Iturria: Eustat, Biztanleria-proiektzioak

1.2.4.- Alderdi ekonomikoak, eta gizarte eta kultur arlokoak**1.2.4.1. Lan-egoera**

Gaur egungo inmigrazio-fenomenoak argi eta garbi lan-arlokoak diren ezaugarriak ditu. Etorikin-talde gehienaren asmoa lan-merkatuan laneratzeko aukera lortzea da. Horrek biltzen diren eremu geografikoak definitzen ditu, eskulan-eskariaren arabera, betiere haietara sartzea errazagoa den sektoreetara, lanbide-kualifikazioa edo izapide administratiboak direla-eta. Ondoko ezaugarriak nabarmendu daitezke EAEko biztanleriaren lan-egoerari dagokionez:

1.2.4.1.1. EAE-ko langile atzerritarren kopurua

15. Koadroa

Laburpena biztanleria atzerritar langilea, lurralde historikoaren, sexuaren eta adin-tartearen arabera (2002)

	Guztira	emakumeak %	Adin-tartea		
EAE	16.510	32,59	16 – 24	25 - 54	54TIK GORA
Araba	4.009	26.69	569	3352	85
Gipuzkoa	5422	36.06	828	6011	233
Bizkaia	7.079	32.02	630	4.557	233

(**) Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002

1.2.4.1.2. Okupazio handieneko produkzio-sektoreak

Lehen sektorea, eraikuntza eta, zerbitzu-sektorea, ostalaritza, hezkuntza eta etxeko zerbitzua nabarmendu behar dira. Atzerritar jatorriko sasoikako langileen fluxu ziklikoa ere bada, batez ere Araban, eta zirkunstantzia bereziak biltzen ditu.

Biztanleria atzerritarren okupazioen mapa ezartzeko zailtasuna kontuan izanda, dokumentu-irregularitasuneko egoerak, ezkutuko enplegua eta abar direla-eta, ondoko koadroa aurkezten dugu, azalpen modura soilik.

16. Koadroa

EAE-n emandako lan-baimenak, jarduera-sektoreen arabera. 2001eko irailetik 2002ko irailera

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	621	11,3%	145	7,8%	335	14,3%	141	10,8%
Industria	728	13,2%	279	15,1%	212	9,0%	237	18,1%
Eraikuntza	856	15,5%	426	23,0%	266	11,3%	164	12,5%
Zerbitzuak	3305	60,0%	1001	54,1%	1536	65,4%	768	58,6%
Guztira	5510	100,0%	1851	100,0%	2349	100,0%	1310	100,0%

Iturria: EAEko Lan eta Gizarte Gaietako probintzia-ordezkaritzak

1.2.4.1.3. EAE-ko atzerritarren kontratazioak

17. Koadroa

Langile atzerritarrei dagozkien erregistraturiko kontratuak, lurralde historikoaren, nazionalitatearen, sexuaren, adin-taldearen eta kontratu mugagabeen arabera. (2002. urtea)


	Guztira	E.E. Euro-parra	Gainera-koa	Emakumeak %	Mugagabeak %
Araba	7.922	1.684	6.238	21,65	8,62
Bizkaia	11.289	2.402	8.887	27,63	7,91
Gipuzkoa	7.428	2.334	5.094	30,53	8,94

(**)Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002

1.2.4.1.5. Kontratazioen banaketa eskualdeen arabera

18. Koadroa

Kontrataturiko etorkinen eta kontratatu guztien banaketa eskualdearen arabera. Urtarrila-iraila 2002



1.2.4.1.4. Biztanleria atzerritarraren enplegu-tasa

Nazionalen artean handiagoa dela ikus daiteke

19. Koadroa

Jarduera-tasa biztanleria atzerritarra - EAE-ko biztanleria oro har konparazio-lana

EAEko enplegu-tasa	60
Enplegu atzerritarraren tasa EAEn	77

20. Koadroa

**EAEn emandako lan-baimenak, jarduera-sektorearen arabera.
2001eko irailetik 2002ko irailera bitartean.**

Atzerritarrek Langai-n eskaturiko enpleguen rankinga		GUZ
1	Etxe-garbitzailea	1.093
2	Biltegizaina/ Biltegi-morroia	882
3	Etxe-langilea	808
4	Etxez etxeko laguntzako laguntzailea	802
5	Peoi igeltseroa	700
6	Edozein lan-mota onartzen duen langile gaitu gabea-FM	636
7	Industri garbiketako langilea	476
8	Dendaria	450
9	Zerbitzaria / Tabernaria	445
10	Sukaldeko laguntzailea	433
11	Edozein lan-mota onartzen duen langile gaitu gabea-CT	404
12	Berritzailea	384
13	Umezaina/Hautzaindegi begiralea	373
14	Administraria /administrari laguntzailea	226
15	Margolaria	223
16	Irakaslea	219
17	Itzultzailea Interpretaria	219
18	Soldatzailea	214
19	Eltzezaina / Ontzi-garbitzailea	203
20	Harreragilea	161
21	Banatzailea	151
22	Edozein lan-mota onartzen duen langile gaitu gabea-SM	150
23	Igeltsero laguntzailea	140
24	Merkataritza-agentea / Saltzailea	137
25	Kutzazaina	137

GUZ	Bete gabeko eskaintzen rankinga hautagairik eza dela-eta
101	Merkataritza-agentea / Saltzailea
53	Zerbitzaria / Tabernaria
43	Etxe-langilea
42	Ile-apaintzailea
38	Irakasle
38	Dendaria
35	Etxez etxeko laguntzako laguntzailea
31	Igeltseroa
31	Industria (astun eta arineko) galderagilea
31	Banatzailea
30	Txirbil-harroketako mak./konformaziokoen/mak. berezien erag.
30	Soldatzailea
30	Programatzailea
30	Parrilazaina
29	Sukaldeko laguntzailea
28	Etxe-garbitzailea
25	Enkofratzailea
24	Administraria /administrari laguntzailea
23	Gasolina-motorren mekanikaria
22	Harakina
22	Segurtasuneko jagolea
22	Salgai-gidaria
22	Edozein lan-mota onartzen duen langile gaitu gabea-CT
21	Elektrizitate-instalatzailer muntatzailea
20	Biltegizaina/ Biltegi-morroia

1.2.4.2. Euskal ekonomiarako ekarpena

Inmigrazioak euskal ekonomiarako egiten duen ekarpena kontuan hartzekoa dela esan liteke, batez ere bi alderdi kontuan izanda:

1.2.4.2.1. Zenbateraino laguntzen duen lan-merkatua bera arautzeko.

Ildo honetan, argigarria gerta liteke 20. koadroa; bertan adierazten denez, atzerritarrek gehien eskaturiko 25 enplegutatik 14k baliokidetasun bera edo antzekoa dute beste 25 enplegu nagusirekin, horietan ez baitira eskulan-premiak bete hautagairik eza dela-eta (ikus 20. koadroa).

1.2.4.2.2. Erregularitasunez Gizarte Segurantzarako kotizatzen duen biztanleria aktiboaren zatia, gizarte hartzailearentzat saldo positiboa eraginez.

21. Koadroa

Atzerritarren afiliazioa gizarte-segurantzaren eae-n, lurralde historikoen arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Erregimen Orokorra	3186	4504	3718	11408
Beste batzuk	823	2575	1704	5102
Guztira	4009	7079	5422	16510

Iturria: Barne Ministerioa: Atzerritarren Urtekari Estatistikoa 2002

22. Koadroa

Afiliaturiko atzerritarrak, erregimenaren eta jatorriaren arabera

	Orokorra	Autónomoak	Nekazaritza	Itsasoa	Ikatza	Etxea	Guztira
Guztira EBtik kanpokoak	67,6%	8,8%	4,4%	2,5%	0,0%	16,7%	100,0%
Guztira Ebkoak	69,7%	21,6%	4,3%	3,3%	0,0%	1,0%	100,0%
Guztira atzerritarrak	68,3%	13,4%	4,4%	2,8%	0,0%	11,1%	100,0%
Guztira afiliazioak EAEn	77,4%	19,8%	0,7%	1,1%	0,0%	1,1%	100,0%

Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. 2002ko maiatza

Gaur **16.510 lagun** daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta EAEn (ikus 21 eta 22. koadroak).

1.2.4.3. Biztanleria atzerritarrek laneratzeko dituen zailtasunak.

1.2.4.3.1. Administrazio-arlokoak

Estatuko antolamendu juridikoan ezarritako administrazio-zailtasunak dira oztopo handiena. Baimenak emateari begira araudi horrek duen zurruntasunarekin batera, espedienteak pilatu egiten dira Administrazio Zentralaren Dependenzietan, eta horrek nabarmen atzeratzen du lan-kontratazioko prozesu guztia, gure enpresetan atzerritarrek lan egiteko aukerari trabak jarrita.

1.2.4.3.2. Berariazko problematika juridikoetara loturikoak

Atzerritar kopuru handia eraginpean hartzen duen edo hura mehatxatzen duen dokumentu-irregularitasunak oztopo larriak eragiten ditu **eskubide ekonomiko eta sozialak** baliatzeari begira, eta horien artean lan-eskubidea bereziki.

EAEra datozen atzerritar gehienak estatuko atzerritarrei buruzko araudian horretarako aurreikusitako prozedurei jarraiki etortzen dira, eta dokumentu-irregularitasuna tarteko. Atzerritarren sarrera irregularrak gutxiengo txikia dira mugimendu orokorarekin alderatuta.

Hori guztia gorabehera, geroago halabeharrezko erregularitasuna ere izaten dute hasierako estatutuari ez diotelako eutsi edo estatuko araudi zorrotzaren hainbat alderdi ez dituztelako betetzen. Gure gizartean izaten diren irregularitasun-egoeren kopurua zehaztugabea da berez betiere, udal-errola tresna garrantzitsua bada ere datu faktikoak eta ez-juridikoak eskaintzeko EAeko atzerritar kopuruari dagokionez. 2001ean, Eustat-ek emandako datuen arabera, 28.754 atzerritar zeuden erroldatuta EAeko udalerrietan (hortaz, urte horretarako egoitza-baimenekiko aldea 8.000 lagunekoa izango da, nahiz eta horiek nondik norako juridikoa eta kantitatea nabarmen alda dezaketen). Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da gaur egungo legeriaren markoan ezinezkoa dela atzerriko inmigrazioaren koadro orokorra eta osoa izatea, dokumentu-irregularitasunaren blokeak definizioz baztertzen baititu bere definizioa edo neurketa. EAeko atzerritarren taldearen zati handi batek izan dezakeen dokumentu-irregularitasuna oztopo nabaria izan liteke haien laneratzeko, eta euren funtsezko eskubideren bat urratzeko arrisku handia, etorkinen taldearen barruan arrisku-talde propioa osatuz.

23. Koadroa

Langile irregularrak aurreikusteko adierazleak

2001eko miaztean erroldaturikoak	28754
2002ko martxoan egoitza-txartelak zituzten egoiliarak	21299
2002ko maiatzean Gizarte Segurantzari afiliatuak	14431
EAEko 15 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren %	70
EAEko 15 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren %	90
EAEko langabezia-tasa	60
EAEko atzerritarren enplegu-tasa	77
EAEEn lanean ari diren atzerritar okupatuak	21500
EAEEn modu irregularrean okupaturiko lagunak	7000

Iturriak: Eustat, MTAS.

1.2.4.3.3. Heziketa eta prestakuntza maileri loturikoak

Gure Autonomia Erkidegora iritsitako biztanleria etorkinak eginiko ikasketa-mailari dagokionez alde handiak ikusten direla adierazi behar da lehenik. Kontrataturiko atzerritarren erdiak pasatxok ikasketa-maila baxua du, titulurik gabeko eskola-graduatuaren baliokidea, %10ek bigarren mailako ikasketak dituzte, eta %5 eskasek dituzte unibertsitate-mailako ikasketak. Berriz ere alde nabarmenak ikusten dira nazionalitateari dagokionez, normalean jatorrizko herrialdearen garapen ekonomikoaren mailari loturikoak (24. koadroa).

Ondokoak azpimarratu behar dira kapitulu honetan:

- ▶ Jatorrizko herrialdean lorturiko kualifikazioak eta titulazioak egiaztatzeko zailtasunak.
- ▶ Enplegu-zerbitzuak baliatzeko zailtasunak: batzuetan atzerritarrek ezin direlako azaldu langabetu gisa, enplegu-eskatzaile gisa soilik - INEMen kasuan, besteetan nola funtzionatzen duen ez jakiteagatik, baliatzeko zailtasunak, hizkuntza-arrazoak eta abar direla-.

- ▶ Aurrekoaren ildo berari jarraiki, enplegurako orientazio eta prestakuntzako ekimenak baliatzeko zailtasunak.
- ▶ Tokiko produkzio-sistemaren antolamendu eta teknologia arloko ezaugarrietara egokitzeko zailtasunak.

Lan-mundura sartzeko zailtasunez gain, beste zenbait problematika atzematen dira ikuspuntu sozialetik, atzeritar jatorriko biztanlerian eragin handia dutenak. Gure Erkidegoari dagokionez errolatuta dauden atzeritarrek administrazio eskudunek ematen dituzten eskubide eta zerbitzu ugari (gizarte-prestazioak eta oinarrizko osasun-zerbitzuak erabat bermatzen ditu barne-araudiak) balia baditzakete ere, bereizitako nondik norako juridikoak zailtasunak eragiten ditu hainbat eremutan, esaterako, etxebizitza eskuratzean, sanitatean eta abar. Ondoren adierazten ditugu horietako batzuk.


1.2.4.4. Eskolaratzea

Gure hezkuntza-sistemara sartzen den biztanleria etorkinak goranzko bilakaera izan du, batez ere azken hiru urteotan. Oro har adierazi daitekeenez, gaur egun arte ez dira zailtasun nabariak izan etorkin-taldeak harrerako gizarteari egokitzeko aukerari dagokionez, Erkidegoko hizkuntza ofizialen ikaskuntzaren ondoriozko problematika bereziak haratago. Hizkuntza eta curriculum arloko errefortzuak ezarrita jorratzen dira zailtasun horiek, funtsezko baliabideak baitira ikasle horiek hezkuntza-sistemara gaineratzeari begira.

Dena den, biztanleria etorkinak zailtasun larriak ditu bere hizkuntza edo kultura propioei eutsi eta haiek garatzeko, nahiz eta geroz eta asoziazionismo-maila

25. Koadroa

EAE-n eskolaraturiko ikasle etorkinen bilakaera



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2002ko abendua)

24. Koadroa

EAE-n errolaturiko atzerritarrak, adinaren, sexuaren eta ikasketa-mailaren arabera

	Ez dago jasota		Analfabetoak		Ikasketa gabeak		Lehen mailakoak		Profesio-nalak	
	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak
10-15	45	47	169	158	481	481	68	72	1	1
15-19	30	10	95	101	443	367	254	246	14	7
20-24	9	8	95	89	554	404	490	549	67	58
25-29	14	7	115	93	696	546	535	602	93	101
30-34	11	17	113	70	689	550	517	528	110	79
35-39	10	16	95	76	536	485	403	459	69	73
40-44	17	14	79	70	466	433	282	297	51	38
45-49	7	13	68	51	340	283	188	210	37	25
50-54	8	13	43	38	156	159	88	124	23	17
55-59	12	13	26	40	101	111	45	64	11	4
60-64	4	11	32	30	72	82	44	46	7	11
65-69	4	7	26	31	60	68	35	35	6	5
70-74	1	9	15	18	46	85	38	36	3	5
75-79	2	5	13	18	29	48	20	25	3	
80-84	2		4	14	22	49	15	28		
>84	4	2	6	12	13	53	9	28	4	1

Bigarren mailakoak		Unibers. erdi-maila		Unibers. goi-maila		Guztira		
Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Gizon	Emak	Guztira
7	4					771	763	1.534
84	110	1	1	3		924	842	1.766
418	582	17	31	33	43	1.683	1.764	3.447
673	876	61	73	111	128	2.298	2.426	4.724
799	820	72	95	201	162	2.512	2.321	4.833
597	647	65	75	182	158	1.957	1.989	3.946
383	384	46	53	138	78	1.462	1.367	2.829
262	263	34	29	94	58	1.030	932	1.962
155	173	20	33	66	33	559	590	1.149
111	91	15	17	50	12	371	352	723
63	63	8	5	27	6	257	254	511
53	41	6	5	13	9	203	201	404
41	30	5	3	14	2	163	188	351
21	20	3	4	2	1	93	121	214
26	20	1	2	4		74	113	187
19	16		3	3	1	58	116	174

handiagoa ikusten den etorkin-taldeen artean euren kultur interes propioak defendatzeari begira.

1.2.4.6. Etxebizitza eskuratzea

Ondokoak dira eremu honetako zailtasun ohikoenak:

- ▶ Alokatzeko etxebizitzaren urritasuna.
- ▶ Alojamentu iragankorreko gizarte-azpiegiturarik eza.
- ▶ Etxebizitzaren gainokupazioa.
- ▶ Infraetxebizitza.
- ▶ Neurrigabeko alokairuak kobratzea.
- ▶ Jabeen mesfidantza, kobratzeko zalantzak, aurreiritzi arrazistak, xenofoboak eta abar direla-eta.

1.2.4.7. Osasun-zerbitzuak baliatzeko aukera

Erreferentziako osasun kontzeptu eta sistemei loturiko zaitasunak daude, eta ondokoak dira horren guztiaren ondorio:

- ▶ Tokiko osasun-zerbitzuen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko ezagutzarik eza.
- ▶ Txertaketa-programen, prebentzio-programen eta abarren jarraipen defizitariora.
- ▶ Laguntza sanitarioko eskubidea baliatzeko zailtasunak.

Ondokoak gaineratu beharko zaizkio aurrekoari

- ▶ Atzerritarren kultura, hizkuntza eta beste hainbat arloko berezitasunak kontuan hartuko dituen arreta sanitario egokia ahalbidetzen duten elementuak eta mekanismoak gaineratzeko Osasun-sistemak berak dituen zailtasunak.
- ▶ Zenbait gaixotasunek biztanleria etorkinean dituzten tasa handiagoak.
- ▶ Zenbait kasutan, pertsonen osotasun fisikoa errespetatzearen aurka doazen praktika kulturalak izatea.

1.2.4.5. Arrisku eta ahultasun egoeran dauden taldeak

Berriazko problematika duten hainbat talde badira, sarritan euren funtsezko eskubideak urratzen baitizkiete. Ondoko kasuak dira gehienbat:

- ▶ Sexu-ustiapeneko sareen menpe dauden emakumezkoak (eta neurri txikiagoan, gizonezkoak).
- ▶ Espetxe, psikiatriko, geriatriko edo polizia-etxeetan dauden askatasun gabeko atzerritarrak, EAEko aire edo itsas mugetan atxilotuta dauden ezkutuko bidaiariak ere barne hartuta.
- ▶ Laguntzen dienik ez duten gazteak.
- ▶ Sasoikako langileak eta euren familiak.

Errealitate hauek beharrezko arreta publikoa eragin behar dute ahultasun eta babesgabetasun egoera berezi hori dela-eta.

1.2.5. Gizarte-erantzunak

EAEen gauzatu diren gizarte-erantzunak aztertzeko garaian hainbeste ekimen, ikuspegi, eremu eta abar adierazi beharko genituzkeenez, ezinezkoa da bilketa zehatza egin eta guztiak ezagutzea. Dena den, joerak identifikatzeko lagungarri izan daitezkeenak nabarmenduko ditugu. Hiru deskribapen-eremu ezartzen dira:

1.2.5.1. Inmigrazio-fenomenoari buruzko ikerketa, ezagutza sortzeko aukera eta gogoeta.

Oro har, hasten ari dela onartu beharra dago, nahiz eta badagoen goranzko joera bat produkzio goranzko eta ikertzailean; ondokoak adierazi daitezke adibide gisa:

- ▶ Inmigrazioaren Euskal Behatokia abiarazteko EHUrekin sinaturiko Inmigrazio Zuzendaritzaren Hitzarmena.
- ▶ Bilboko Udalaren azterlana (Lan Ekintza): "Bilbon bizi den biztanleria atzerritarraren ezaugarriak (2002) eta Gasteizko Udalaren: "Hegoaldeko inmigrazioa Vitoria-Gasteizen".

- ▶ Biztanleria etorkinak Donostialdean dituen premien azterlana.
- ▶ Inmigrazio Zuzendaritzaren txostena lan eta inmigrazio merkatuari buruz (EGAILAN).
- ▶ Biltzarrak, Jardunaldiak eta mintegiak, instantzia publiko eta pribatuetatik sustaturikoak.

Oro har, aldagai esanguratsuei buruzko deskribapen-datuak eskaintzan diren arren, ez dugu bilakaerako informaziorik inmigrazioaren fenomenoari buruz. Bestalde, etorkinei buruzko gizarteratzearen alderdi kualitatiboen azterketa urria da oraindik ere.

1.2.5.2. Gizarte hartzailearen pertzepzio, jarrera eta jokabideei dagokienez

- ▶ Inmigrazioa fenomeno positibo eta aberasgarritzat baloratzeko joera dagoela esan daiteke; dena den, euskal gizartea jabetuta dago horrek problematika berriak sortzen dituela, eta erantzuteko mekanismo eraginkorrek behar direla horretarako.
- ▶ Euskal gizartearen gehiengoaren jarrera elkartasun konpartituarena da herritarren sektore berri honekiko, talde horri ere eskubide instituzionalak erabat zabaltzeko aukeraren aldeko apustu irmoa eginda.
- ▶ Jarraibide orokor gisa, gizartearen zati handi batek inmigrazioa eta gure gizartean dagoen eskulan-premia oso zuzenean lotzen dituela esan behar da, eta horren haritik, berme demografiko bezala ere ikusten du inmigrazioa, egungo gizarte-prestazioen sistema iraunarazteko modu bezala. Inmigrazioaren ikuspegi ekonomikoa nagusitzen da.
- ▶ Gizarte zibil antolatua deiturikoaren ikuspuntutik, laurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren inmigrazioaren gaia berariaz jorratzen lehen gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarte-eragileak. Orduetik hona, antolamendu eta mugimendu sare zabala sortu da, etorkinen eta nazionalen gizarteratzeari erabat edo partzialki loturikoa.

Dena den, eremu horretako gizarte-mugimendua oraindik ere gaztea dela eta nolabaiteko egiturazko ahultasuna duela hartu behar da kontuan, nahiz eta horrek ez duen oztopatu zenbait kasutan programa berritzaileak garatzea, ia beti erakundeen bultzada ekonomiko handia atzean zutela.

1.2.5.3. Inmigrazioa dinamika instituzional eta sozialera gaineratzea

Migrazio-fenomenoa gure Erkidegoko errealitate instituzionalera zenbateraino gaineratu den aztertzeko zenbait prozesu nabarmentzea komeni da; horien asmoa ez da sentsibilitate eta ekimenen panorama konplexua agortzea, baina dena den, joera bat objektibizatu eta zenbait oinarri ezartzeko lagungarri izan litezke, horien gainean plana finkatu eta sakontzeko moduan:

- a) Egiturak eta organoak sortzea Administrazioaren mailetan, inmigrazioaren fenomeno eta hari erantzun integrala eta koordinatua ematea aztergai dutela:
 - ▶ Inmigrazioa Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza
 - ▶ Herritar etorkinak Euskadin gizarteratu eta parte hartzeko foroa.
 - ▶ Inmigrazioaren Euskal Behatokia
 - ▶ Toki-eremuko zenbait talde hainbat izenekin: Bilboko Udaleko Inmigrazio Bulegoa, Udal Gizartekintza Kontseiluaren Inmigrazioari buruzko Lantaldea (Donostia).
- b) Etorकिन arreta eta gizarteratzeari buruzko planen garapena.
 - ▶ Zenbait kasutan berriazko edukiarekin inmigrazio-gaian, Inmigrazioko Tokiko Planen izenpean. Gaur egun tokiko plana duten zenbait toki-erakunde aipatu behar dira, edo eratzeko konpromisoa dutenak behintzat: Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala, Irungo Udala, Barakaldoko Udala, Lea-Artibaiko Mankomunitatea, Getxoko Udala, Mungialdeko Partzuergoa, Ermuko Udala, Eibarko Udala eta Pasaiko Udala.
 - ▶ Beste zenbait kasutan, inmigrazioaren errealitatea jada abiarazitako planetan integratuta, batez ere sektoreen arabera: enplegua, hezkuntza, sanitatea, etxebizitza eta abar.

Edozein kasutan ere, ondokoa egiazta daiteke:

- ▶ Inmigrazioaren errealitatea arian-arian sartzan ari dela politikaren eta gizarte esku-hartzearen agendan; EAren eremuan zein toki-eremuan.

- ▶ Informazio-sistema sendo bat eduki behar dela, Administrazioak eta gizarte-eragileak elikatzeko eta haien plangintzaren euskarri izateko.

c) Zerbitzuak eta programak sortu eta berriz orientatzea.

Sentsibilizazio instituzionalarekin aldi berean eta gehienetan ere egitura eta finantzaketa estalita, hainbat baliabide, zerbitzu eta eragile garatu dituzte arian-arian. Horietako zenbait aipatzeko:

- ▶ Etorkinen Arretarako Udal Programak eta Zentroak (esate baterako, Gasteizko Udalean: NORABIDE; Bilboko Udalean: Inmigratioko Udal Zerbitzua – SEMI-; Donostiako Udalean: Laguntza-programa gizarte-trebetasunen eta baliabide komunitarioak baliatzeko arloan).
- ▶ Etorkinen arreta juridiko-sozialerako HELDU programa hiru lurralde Historikoetan Eusko Jaurlaritzaren eta Abokatu Elkargo Ofizialen hitzarmenaren bidez, EAEko Udalen lankidetzarekin.
- ▶ Etorkin adingabeen arretarako hitzarmenak, adingabe atzerritarrak aldi baterako hartzeko programak, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien tutoretzapeko etxebizitzak eta abar.
- ▶ Nekazaritzako Sasoikako Programa (Arabako Foru Aldundia).
- ▶ Foru Aldundien eta Udalen laguntzak eta diru-laguntzak gizarte-erakundeentzako, etorkinentzako edota errefuxiatuentzako arreta sozial eta juridikoko programetan, gizarte eta lan arloko informazioa, lanerako eta gizarte-trebetasunak garatzeko lantegiak, sentsibilizazio-jardunak...

Oro har, eskaintzen den zerbitzu-mota laguntza ekonomikoak baliatzearekin, orientazioarekin, aholkularitza juridiko eta lan-arlokoarekin, alojamenduarekin, osasunarekin, beste zerbitzuetara bideratzearekin eta abar dago lotuta. Azken urteotan beste zerbitzu-mota bat ari da bereizten, babes psiko-sozialari, bitartekotzari eta abarri buruzkoa...

Aurrekoari dagokionez, Planaren lerroetako bat etorkinak Hartzeko udal-oinarriko Sare bat sortzea dela adierazi behar da, eta hura egituratzea, bertikalean, zerbitzu eta egoera orokorragoekin, zein horizontalean, tokiko bestelako baliabide eta ekimenekin.

Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren zutabeetako bat den Sare honek finantzaketa egokia eta adostasuna lortzeko neurrien aurreikuspena, eta Herri Administrazio guztien konpromisoa eskatzen du, 2002ko martxoaren 27ko Eusko Legebiltzarraren legez besteko proposamena betetzeko (Eusko Jaurlaritzari Herri Administrazioekin lankidetzan aritzeko eskatzen diona etorkinentzako babes-programa ezartzeko herritarrei gizarte-zerbitzuen sare nagusian bilduriko zerbitzuak eskaintzekoa).

Oro har, atzerritarrak zerbitzu eta prestazio sistemetara gaineratzeko aukera oinarritzat duten prozesuak ditugu. Bi premisa betetzen dituzte guztiek ere:

- ▶ Eskubideen zabaltzea zerbitzuak eta prestazioak modu normalizatuan baliatzen diren neurrian gauzatzen da, horiek baliatuta, hain zuzen ere. Foru Aldundiak, gizarte-zerbitzu espezializatuen bidez, eta Udalek, zerbitzu orokorren bidez, bereizketarik gabe artatzen dute biztanleria etorkina, Eusko Jaurlaritzak bezala.
- ▶ Zerbitzuak eta prestazioak unibertsalak eta orokorrak dira.

Ikuspegi dinamikoagotik begiratuta, eta epe ertainean, biztanleria atzerritarren berariazkoenari kasu egitea ahalbidetzen duten estrategiak sustatzea komeniko litzateke, unibertsaltasun-planteamenduei eutsiz.

Ildo horretan, sistema eta zerbitzuen orientazio eta funtzionamendua beharrezko egokitzapenekin eta malgutasunarekin osatu beharko lirateke unibertsaltasunak gordetzen dituen eskubideak behar bezala baliatzea zailtzen duten egoerei erantzun egokia emateko.

Hortaz, etorkinek hartzaile, erabiltzaile, onuradun eta abar soilik izateko duten eginkizuna gainditu beharra ikusten da, zerbitzuak, programak eta abar eratu eta kudeatzeko parte hartzeko ildoak garatuta.

d) Sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren eremuan.

Inmigrazio-arloko, kultura arteko arloko eta abarreko prestakuntza-eskaintzak ezagutu gabeko hazkundera izan du: prestakuntza-ekintzen kopuru handia, edukien dibertsifikazioa eta talde hartzaileak, erakunde sustatzaileak, prestakuntza emateko inplikaturiko entitateak, jarduera eta zona sektoreak... Adibide besterik ez direla eta zorrotz kontuan hartu behar ez direla gogorarazita, ondokoak aipa daitezke:

- ▶ Kulturartekotasunari buruzko ikastaroak, ikasle etorkinak ikastetxeetan hartzea, kultur aniztasunerako arreta eta abar, irakasleen prestakuntza etengabearen markoan (GARATU plana, Hezkuntza Saila).
- ▶ Inmigratio Zuzendaritzak sustaturiko Udaleko Gizarte Langileentzako Prestakuntza.
- ▶ Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren etengabeko prestakuntza-planei gaineraturiko inmigratioari buruzko prestakuntza ekintzak eta moduluak.
- ▶ Inmigratioari eta atzerritarrei buruzko ikastaroak, Etorkinak babesteko Euskadiko GKEen Koordinakundeak antolaturikoak, hainbat jatorritako profesionalentzako.
- ▶ Inmigratioari, kulturartekotasunari eta abarri buruzko prestakuntzak barne hartzea prestakuntza-entitateen prestakuntza-eskaintzan (Unibertsitateak, prestakuntza edota gizarte esku-hartzeko toki-entitateak eta abar).
- ▶ Gaiari buruzko ikasmaterial askotarikoa lantzea.
- ▶ Gizarte-bitartekariak, kultura artekoak eta abar prestatzea..

Eskaintza zabala, azken batean; Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak geroz eta inplikatuagoak daude bertan, baina hasiera batean etorkinen egoerarekin sentsibilizaturiko elkarteek eta erakundeek bultzatu zuten, gizarte eta lan arloko esku-hartze programak, parte-hartze instituzionaleko eta salaketako ildoak, prestakuntza eta sentsibilizazio programak eta abar garatuta, gehienetan ezagutu eta babestu beharreko lan boluntarioaren bidez, gizarte kultura artekoak duen oinarrietako bat elkartasuna baita.

1.2.6. EAE-ko inmigratioaren egoeraren laburpena.

Bolumena

- ▶ Urria kuantitatiboki, oro har biztanleriarekiko portzentajea zein gure inguruneko erkidego eta estatuekin alderatuta.
- ▶ Hazkunde etengabe eta bizkorrean azken urteotan, eta joera horretan jarraitzeko aurreikuspenekin, epe motz - ertainean behintzat.

Factoreak	<ul style="list-style-type: none">▶ Motibazio nagusia lan-merkaturatzea da, nahiz eta hazten hasi diren familia elkartzeko dinamikak.
Jatorria	<ul style="list-style-type: none">▶ Askotarikoa jatorri geografiko, hizkuntza-arloko, etniko eta abarreko ikuspuntutik begiratuta.▶ Europar Batasunaz kanpoko inmigrazioaren hazkunde handia eta Europar Batasuneko espaziotik datorrenaren egonkortzea.
Banaketa geografikoa	<ul style="list-style-type: none">▶ Batez ere hiri-zonetan, lurralde historikoetako hiriburuetan bereziki.▶ Gipuzkoak du Batasunaz kanpoko atzerritarren portzentaje handiena.▶ Araba da bertako biztanleriarekiko biztanleria atzerritarraren proportzio handiena duen Lurralde Historikoa.
Sexua	<ul style="list-style-type: none">▶ Gizon/emakume arteko oreka oro har.▶ Betiere aldeak izanik jatorriaren arabera: feminizazioa Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikatik eta Europar Batasunaz kanpoko Europatik datorrenean, eta nolabaiteko maskulinizazioa Europar Batasunetik eta Afrikatik datorrenean.
Adina	<ul style="list-style-type: none">▶ Bertakoarekiko biztanleria-egitura osagarria: bertako biztanleriaren adin-tarte "defizitarioak" osatzen dituzte, handitzeko joera dutenetan kontingente handirik ekarri gabe:▶ Biztanleria atzerritarraren %55 - %60 inguru 25-44 urte bitarteko tartean bilduta dago eta lanerako adinean dagoen taldearen %80 gaingitzen du.▶ Proiekzio demografikoen arabera bertako biztanleriak biztanleria-saldo negatiboa izango du 5-34 bitarteko adin-taldean datozen urteetan.

Gizarte eta lan arloko egoera

- ▶ Atzerritarrak atzerritartasunari buruzko legerian xedaturikoaren arabera sartzen dira oro har; egonaldia, ordea, ez da horrela izaten, eta halabeharrezko irregulartasun-egoerak gertatzen dira: dokumentu-irregulartasuneko egoerak %25 inguru direla kalkulatzen da.
- ▶ Atzerritarren %75 lanean daude.
- ▶ Erroldaturiko atzerritarren %50 Gizarte Segurantzari afiliatuta daude, hiru laurdenak erregimen orokorrean.
- ▶ 77/60 bertako biztanleriarena baino enplegu tasa handiagoa dute.
- ▶ Lehen sektoreko lana lehen sektorean, eraikuntzan, industrian eta zerbitzuetan, horien artean etxeko zerbitzua eta ostalaritza nabarmenduta.
- ▶ Normalean kualifikazio eta gizarte-ospe baxuko enpleguak izaten ditu, bertako biztanleriak ez baitu horietarako dagoen eskaintza betetzen.
- ▶ Atzerritarrentzako kontratuen %65 baino gehiago hiru euskal hiriburuetan eta metropoli-barrutietan eskaintzen dira.

Euskal Ekonomiarako ekarpena

- ▶ Tokiko lan-merkatua arautzea, bertako eskulana ez dagoen sektore eta enpleguetan jardura garatuz.
- ▶ Gizarte Segurantzarako kotizazioak (16510 atzerritar).

Laneratzeko zailtasunak

- ▶ Administrazio-zailtasunak lan-baimenen espedienteak ebazteko, kontuan hartuta urriak direla laneratzeko eskariarekiko.
- ▶ Beste zenbait, prestakuntza eta kalifikazio maila baxuagoi, kualifikazio eta titulazioen akreditazioari, eta sistema teknologiko eta antolamenduzkoak tokiko produkzio-sistemara egokitzeari lotuagoak.
- ▶ Azkenik, enplegurako orientazio eta prestakuntza zerbitzuak baliatzei buruzkoak.

Eskolaratzea

- ▶ Ikasle atzerritarren eskolaratze-maila areagotzea, batez ere hezkuntza-sistema publikoan, gehienbat ere Lehen Mailako Hezkuntzaren etapan eta A ereduan.
- ▶ Atzerritarren bolumen urriak ez ditu tentsio handiak eragin oraindik, ez hezkuntza-sisteman, ez harrera-kulturarako egokitzapenean ere.
- ▶ Zailtasun handienak iberoamerikarrak ez diren ikasleek gaztelania ikasteko dituztenei lotuta daude.
- ▶ Euskararen ikaskuntza murrizta biztanleria atzerritarrak euskaldun eremuetan duen portzentajearekin alderatuta.
- ▶ Ama hizkuntza eta kulturari eusteko zailtasunak.

Antolamendua, egituratzea

- ▶ Geroz eta asoziazionismo eta antolamendu handiagoa dute atzerritarrek euren interes eta eskubideak defendatzeko, oraindik nolabaiteko egitura-ahultasuna badute ere.

Arrisku eta ahultasun egoerak

Ondokoak nabarmendu litezke:

- ▶ Irregularitasun-egoeran daudenak, sartzera koan zein halabarrez.
- ▶ Sexu-ustiapeneko sareen eta etxeko indarkeria-egoeren menpe dauden emakumeak.
- ▶ Laguntzen dienik ez duten adingabeak.
- ▶ Askatasunik ez dutenak.
- ▶ Aire edo itsas mugetan atxiloturiko ezkutuko bidaiariak.

1.2.7. Gizarte-erantzunen laburpena

<p>EAEko migrazio-fenomenoari buruzko ezagutza sortzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Inmigrazioaren fenomenoaz aztertzeko eta ezagutzeko joera, hasiberria baina goranzkoa, eremu instituzionalean eta akademikoan. ▶ Ikerketa-ekimenen, informazio-trukeen eta esperientzien areagotze kualitatibo eta kuantitatiboa; gogoeta eta eztabaida handiagoa legeriari eta marko juridikoari buruz, biztanleria etorkinaren gizarteratzea eta abar. ▶ Bilakaerari loturiko ikuspegia eta ikuspegi kualitatiboa osatzeko premia.
<p>Pertzepzioa, jarrerak...</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Uztartuta ageri dira, alde batetik, inmigrazioa fenomeno positibo eta aberasgarritzat hartzen duen iritzia eta, beste aldetik, gero eta ugariagoak diren etorkinen etorrerak eragin ditzakeen arazo berrien susmoa. ▶ Guk dauzkagun eskubideak atzeritarren taldeari ere zabaltzearen alde dago gizartearen gehiengo zabala. ▶ Ikuspegi ekonomizista da nagusi: inmigrazio eskulan gisa, koltxoi demografiko gisa eta abar.
<p>Erantzun instituzionalak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Inmigrazioaren errealitatea arian-arian gaineratzea plangintza eta antolamendu instituzionalera. ▶ Zerbitzuak, baliabideak eta programak sortzea, gutxi-asko berariazkoak, etorkinaren arretarako mugatuak. ▶ Azken urteotan prestakuntza eta gogoetarako ekimenak garatu dira, entitate sustatzaileen, markoen, talde hartzaileen eta abarren aniztasuna ezaugarri dituztela. ▶ Plangintza-prozesuak elikatzen dituen informazioa eta ezagutza edukitzeko premia.

Gizarte zibilaren mobilizazioa

- ▶ Gizarte zibiletik etorkinak gizarteratzeari zuzenean lotutako geroz eta antolamendu eta mugimendu gehiago biltzen dituen sarea garatu da.
- ▶ Etorkinen gizarteratzearekin loturiko elementuak irabazi asmorik gabeko Entitateen plangintza eta kudeaketara geroz eta gehiago gaineratzea: prestakuntza-entitateak, gizarte-baztertzearen aurkako borrokan ibilbide zabala duten erakundeak eta abar...
- ▶ Administrazioen eta GKEen arteko geroz eta lankidetzari handiagoa berriazko programen garapenean, betiere etorkinak aztergai dituztela, edo gutxienez haiek hartzailetzat dituztenak.
- ▶ Etorkin Elkarteak geroz eta gehiago aritzen dira gizarte esku-hartzeko eragile gisa, zenbait proiektu garatuta.

Jorratzen diren premiak, eta zerbitzu eta programen orientazioa

Premiei dagokienez:

- ▶ Inmigrazioa lan-arloari argi eta lotuta egotearen eraginez laneratzearekin eta bertara sartzeko marko juridikoak ezartzen duen dokumentazioarekin loturiko premiek protagonismo handia hartu dute zerbitzu eta programen eraketan eta kudeaketan.
- ▶ Gizarte-baztertze prozesuen ondoriozko oinarrizko premiak betetzeari loturikoak ere azpimarratu behar dira, sarritan etorkin ugari baitaude horietan. Etxebizitza eskuratzeari eta gutxieneko baliabide ekonomikoari buruzko problematikak.
- ▶ Azken urteotan, babes sozio-psikologikoko, sustapeneko eta gizarte parte-hartzeko premiak aztergai dituzten programak sendotzen ari dira.

(jarraipena)

Jorratzen diren
premiak, eta
zerbitzu eta
programen
orientazioa

Orientazioari dagokionez:

- ▶ Marko juridikoaren zurruntasuna eta eskubideen titulartasunari eta baliatzeari dagokionez hark ezarri dituen mugak lagungarri izan dira harrera-erantzun askotan inmigrazio-legeekiko salaketaren eta erreakzioaren ikuspegia nagusi izateko.
- ▶ Oinarrizko eskubideak biztanleria guztiari zabaltzea zerbitzuak eta baliabideak unibertsalizatzearen bidez gauzatu dira, zerbitzu horiek baliatzeko aukera ezarri eta arauturiko baldintza orokorreari jarraiki sustatuta.
- ▶ Sarritan, irregulartasun-egoera eta biztanleria etorkinaren sektore jakinei loturiko beste zenbait zirela-eta laguntzazko ikuspegia izan da nagusi, eta gaur egun joera hori osatzekoa da, sustapenaren, emantzipazioaren, talde-jabekuntzaren eta abarren bidez.

Gerorako
erronkak

- ▶ Migrazio-fenomenoei buruzko ezagutza, gizarteratzeko politikak eta abar sakontzea.
- ▶ Herritarren kultura, kultur aniztasuna eta inmigrazioaren dimentsioak sustatzea aberastasun gisa gizarte hartzailean.
- ▶ Etorkinen gizarteratzea gaineratzeko aukeran sakontzea, baita kulturartekotasuna ere erakundeen eta gizarte-eragileen agendan.
- ▶ Jaurlaritzaren, Erakundeen eta Gizarte Zibilaren osagarri-lana sendotzea laneratzeko, elkarbizitzarako eta kulturartekotasunerako ekimenak ezartzeari begira.

(jarraitzen du)

(jarraipena)

Gerorako erronkak	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Etorkinen Elkarteen sustapenerako, emantzipaziorako eta parte-hartze sozial, kultural eta politikorako laneko lerroak gaineratzea, laguntzazkoak soil-soilik diren ikuspegiak gaindituta. ▶ Zerbitzuak eta baliabideak egokitzeko formulak sustatzea, unibertsaltasunaren, orokortasunaren eta beste hainbat printzipioei eutsiz talde bakoitzaren kultur berezitasunez jabetzeko moduan.
------------------------------	--

2. EGUNGO MARKO ARAU-EMAILE ETA POLITIKOA: AZTERKETA KRITIKOA

2.1. ESKUMEN-BANAKETA

Hainbat eskumen-tituluk dute eragin zuzena inmigrazioaren kudeaketan gure antolamenduaren barruan. Alde batetik, eskubideak eta askatasunak betetzeari dagozkion titulu generikoak ditugu. Bigarrenik, titulu funtsezkotzat biltzen ditu inmigrazioa eta atzerritartasuna antolamendu konstituzionalak. Azkenik, hezkuntza, etxebizitza, sanitatea edo gizarte-ongizatea bezalako sektore-gaiak garrantzitsuak dira eremu horretan.

Adierazitako eremuetatik lehenari dagokionez, ondokoa biltzen du 1978ko Konstituzioak 10.2 artikuluan:

“Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide ezin bortxatuzkoak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea.

Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere.”

Konstituzioa beraren 96.artikuluaren arabera, Estatu espainolak berresten dituen giza eskubideei buruzko itun eta hitzarmenak zuzenean sartzen dira bere

antolamendu juridikoan, erabateko indarraldiarekin Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera. Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketari dagokionez, 149.1.1 artikulua aipatu behar da, ondokoa estatuaren eskumena dela adierazten baita bertan: *"konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautzea"*.

Era berean, EAEko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua ondokoa ezartzen du:

"Euskal herri-aginteez, beren eskumenen esparruan,

- a) *Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.*
- b) *Bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki.*
- c) *Enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte.*
- d) *Gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.*
- e) *Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute"*.

Horren guztiaren arabera, Estatu osoan eskubideak eta askatasuna betetzeko aukera ziurtatzea Estatuaren beraren eskumena izanda ere, EAEk badu jarduteko marjina, betiere Estatu osorako ezarritakoarekiko modu positiboan edo osagarrian, kontuan izanda horren gutxienekoa ezin dela beherantz gainditu eskumen-inbasiorik gabe.

Bestalde, Konstituzioaren 149.1.2 artikulua adierazten duenez, Estatuaren eskumen eskusiboa da nazionalitateari, atzerriartasunari, emigrazioari, inmigrazioari eta asilo-eskubideari buruzko gaia, eta hortaz Estatuaren erakunde zentraleri dagokie eremu funtsezko horietan legistatu eta administratzea. Dena den, adierazitako artikulua horrek herritartasunaren kontzeptua biltzen ez duela adierazi behar da. Aitzitik, modu polisemikoan erabiltzen da herritartasunaren (edo herritarraren) kontzeptua gure antolamenduan. Kontzeptu hori zenbait eskubide zibil eta politiko

zein ekonomiko, sozial eta kultural baliatzearekin lotu behar da, hainbat sektoretako eskumen-eremuak eraginpean hartzen dituztela, esate baterako, hezkuntza, osasuna, etxebizitza eta gizarte-ongizatea; guztiak ere EA Eren eskumena dira Autonomia Estatutuan bertan (batez ere 10, 16 eta 18. artikuluetan) ezarritakoaren arabera, eta oro har euskal erakundeen eskumen eskusibo gisa eratuta.

lido honetan, gaiari buruzko funtsezko legeria Parlamentu Zentralari badagokio ere, Eusko Legebiltzarra ere eskuduna da hainbat sektore-gai arautzeko, atzerritarra legeria hartan aurreikusitakoak baino eskubide gehiago baliatzeko gaitzen dutenak. Horri jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek ez dute eskumenik izango, gaur egun indarrean dagoen antolamenduaren arabera, Estatuaren funtsezko araudia eta bertan ezarritako kategoria juridikoak urratzeko, bai osatzeko, ordea, eskubideak aintzat hartzetik abiatuta. Horri buruz kontuan hartu behar da Estatuaren 9. artikulua herritartasun terminoa biltzen duela, euskal herritar izate politikoaren kontzeptua (testu bereko 7. artikuluan bildurikoa) ez bezalako eta zabalagoa.

Azkenik, Estatuaren zein Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuak Europar Batasunaren antolamenduak ezarritakoaren arabera berriz aztertu behar direla gogoratu behar da, arian-arian gertatzen ari den araudien harmonizazioaren barruan.

2.2. NAZIOARTEKO MARKO POLITIKO ETA ARAU-EMAILEA

2.2.1. Eremu unibertsala

Nazioarteko lankidetzaren esparruan, Nazio Batuen Erakundeak egindako lana azpimarratu behar da. Konstituzioaren 10. artikuluan adierazitako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaz (1948) gain, beste zenbait Adierazpen ere hartu ditu haren Batzar Nagusiak, guztiak ere garrantzitsuak atzerritarren eskubideen eremuan. Ondokoak barne hartuko dira hemen bereziki:

- a) Arraza Diskriminazio modu guztiak kentzeari buruzko Adierazpena (1963).
- b) Lurralde Asiloari buruzko Adierazpena (1967).

- c) Erljioan edo Usteetan oinarrituriko Intolerantzia eta Diskriminazio modu guztiak Kentzeari buruzko Adierazpena (1981).
- d) Bertan bizi diren Herrialdeko Nazionalak ez diren Gizabanakoen Giza Eskubideei buruzko Adierazpena (1985).
- e) Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako, Erljiotsuetako eta Linguistikoetako Kide direnen Eskubideei buruzko Adierazpena (1992).

Nazioarteko itunei dagokionez, Estatu espainolak Nazio Batuen Erakundean landu diren giza eskubideei buruzko itun gehienak berretsi ditu. Horien artean daude Arraza Diskriminazioa Kentzeko Hitzarmena (1965), errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena (1951) eta haren Protokolo Gehigarria (1967), Aberrigabeen Estatutuari buruzko Hitzarmena (1954), baita Aberrigabetasun-kasuak gutxitzeko Konbentzioa ere (1961). Dena den, Estatu espainolak ez du berretsi Langile Etorकिनak eta euren Familiartekoak Babesteko Nazio Batuen Hitzarmena (1991), eta kontuan hartu behar da bereziki garrantzitsua dela etorkinen eskubideen arloari dagokionez.

2.2.2. Eskualde-eremu europarra

Europako Kontseiluaren markoan, horri begira egindako berariazko ekintza ez-konbentzional garrantzitsuen Arrazakeria eta Intolerantziaren Europako Batzordeak (ECRI) garaturikoa da. Eremu arau-emaile edo konbentzionalari dagokionez, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmen Europarraz (1950) eta Tortura, eta bestelako tratu krudel, anker edo umiliagarriak Prebenitzeko Hitzarmenaz (1987) gain, Estatu espainolak Langile Etorकिनen Legezko Estatutuari buruzko Hitzarmen Europarra (1977) eta Gutxiengo Nazionalak Babesteko Hitzarmen Markoa (1995) ere sinatu ditu. Dena den, gai horri dagokionez egiazta daitekeenez, Estutuak ez du inmigrazio-gaiari buruzko inolako erreferentziarik egiten konbentzio hori aplikatzeko bere lehenengo txostenean.

Eremu horretan bertan, Estatu espainolak ez du Atzerritarrek Herriko Bizitza Publikoan parte hartzeari buruzko Hitzarmena (1992) berretsi.

2.3. EUROPAR BATASUNAREN MARKO POLITIKO ETA ARAU-EMAILEA

1997an sinaturiko Amsterdamgo Ituna indarrean sartu zen arte, Europar Batasuneko herrialde kideek inmigrazio eta asilo arloan eginiko harmonizazio-lana lankidetzaz

juridikoan eta gobernu arteko politikan oinarritu da gehienbat, Europar Batasuneko zuzenbidearen funtsezkoenarekin lotu gabe. Lankidetzaren horren fruitu garrantzitsuenak Dublingo Hitzarmena (1990), asiloa arautzeari eta hura eskatzeko prozedurari buruzkoa, eta Schengengo Akordioak (1985) aplikatzeko Hitzarmenak izan ziren; Batasuneko Estatu kide askoren arteko barne-mugak desagertzea arautzen zituzten horiek, besteak beste.

Hala eta guztiz ere, gaur egun eta, izan ere, lehen aipaturiko Amsterdamgo Itunaren arabera, juridikoki posible da Batasuneko araudi loteslea hartzea Estatu kideentzako asilo, inmigrazio eta mugen kontrolaren arloan. Ildo honetan, Batzordeak Kontseiluari eta Parlamentuari inmigrazio-politikari buruz eginko Komunikazioaz gain (2000), zenbait arteztarau onartu dituzte tratu-berdintasuna bultzatzeko (2000/43 Arteztaraua), diskriminazio eta arrazakeriaren aurkako borrokarako (2000/78 Arteztaraua) eta hirugarren herrialdeetatik nazionalak kanporatzeko erabakiak elkarri aintzat hartzeko (2001/40 Arteztaraua). Era berean, hirugarren herrialdeetako nazional egoiliar luzarorako estatutuari buruzko edo familia biltzeari buruzko arteztarau berriak lantzen ari dira Europar Batasuneko erakunde guztiak.

2.4. ESTATUAREN MARKO POLITIKO ETA ARAU-EMAILEA

2.4.1. Arautzea

Atzerritartasun-eskubidea da hizkuntza juridikoan Estatuaren politikak inmigrazio eta atzerritartasun arloan bilduriko printzipioak islatzen dituen antolamendu-sektorea. Gaur egun indarrean dagoen atzerritartasun-eskubideak laurogeiko hamarkadaren erdian du jatorria, eta aldi berean gertatu zen Espainiako Atzerritarrek dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko 7/1985 Lege Organikoaren ("atzerritartasun-legea) eta Asilo-eskubidea eta 1984ko Errefuxiatu Izatea arautzen duen Lege arautzailearen onartzearekin, baita dagozkien araudiarena ere. Konstituzioaren Auzitegiaren bi epai garrantzitsu baliatu zituzten hasierako eraketa arau-emaileak osatzeko: alde batetik, 107/1984 epaia, Espainiako atzerritarren oinarritzko eskubideei buruzkoa, eta bestetik, 115/1987 epaia, Herriaren Defendatzaileak 7/1985 Legearen zenbait aginduren aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa ebazten zuena.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, aldaketa arau-emaile garrantzitsuak izan ziren arlo horretan. Bereziki azpimarratzekoak dira Asilo Legea

eta bere garapen-araudi berria aldatu izana 1994an, eta atzerritartasun-legerako garapen-araudi berria onartu izana 1996an. Dena den, 7/1985 Lege Organikoa, arlo horretako arau nagusia, ez zuten 2000. urtera arte aldatu. 4/2000 Lege Organikoaren, Espainiako Atzerritarren Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzkoa, onartzearekin burutu zen lehenengo erreforma, asmo integratzaileagoa eta 1985eko Legearen eskema zurruna partzialki gainditzeko nahiaren adierazgarri garbia. Hala eta guztiz ere, denbora gutxian gertatuko zen hura aldatzeko prozesu bizkorra eta elkarrizketa gutxikoa; 8/2000 Lege Organikoa onartzearekin amaitu zen, aurreko legearen artikuluen zati handi bati idazkuntza berria emanda. Norabide hirukoitza dute bigarren erreforma honetako joera azpimarragarrienek. Alde batetik, irregulartasun-egoeraren estatutu juridikoa okerragotu dela egiazta daiteke. Bigarrenik, zigor-erregimena gogortu egin da edukiari zein prozedurei dagokienez. Azkenik, eta hirugarrenik, Exekutiboaren gaitasuna izugarri areagotzen da Legea alderdi askotan arauari jarraiki garatzeko. Oinarri horrekin, egungo "Atzerritartasun-legea" garatzeko Araudi berri bat onartu zuen Gobernuak 2001ean. 2003ko azaroaren 21eko datarekin argitaratu dute BOEn 14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20ko 4/200 Lege organikoa aldatzen duena, urtarrilaren 11koa, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa. Aldaketa horrek Estatuaren Administrazio Orokorrak dituen eskumeneko eta inmigrazioa kontrolatzeko ahalmenak zabaltzen ditu, eta egoera irregularrean dauden atzerritarrak erabat babesgabe uzten ditu.

Arau hauek guztiek atzerritartasun-zuzenbidearen ardatz nagusia eratzen dute, eta ez ordea inmigrazio-zuzenbidetzat egitura zitekeena. Sektore juridiko honen ardura nagusia atzerritartasunaren fenomenoaren arautu eta kontrolatzea da, hau da, nazionalitate juridikoa ez dutenek Estatuaren lurraldean duten presentzia, eta ez ordea, inmigrazio-prozesu osoa behar bezala bideratu eta arautzea.

Atzerritartasun-eskubide hau hiru ideia edo printzipio gidatzaile handiren adierazgarri da: parekatze murriztua, baimentzea, eta ekonomia eta gizarte arloko bideragarritasuna.

Parekatze murriztuari dagokionez, Konstituzioaren 13. artikulua adierazten duenez askatasun publiko berak dituzte Espainian nazionalak eta atzerritarrek, eskubide politikoak izan ezik, eta legeak eta nazioarteko hitzarmenek zehaztuko dituzte atzerritarren eskubideen titulartasuna eta horiek baliatzeko aukera. Atzerritartasun-legeak murrizketak ditu titulartasunari zein eskubide zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak baliatzeko aukerari dagokienez; horri administrazioak hura gehiegi baliatzen duela gehitzen badiogu, Estatuaren antolamenduko adierazitako parekatzea murriztu-murriztua da horren ondorioz, bereziki izate juridiko partikularraren arabera (dokumentu erregulartasun edo irregulartasuneko egoera).

Baimentzearen printzipioari dagokionez, Espainiako lurraldean ezein atzerritarrek ez duela dagokion baimen administratibo edo legezkorik gabe egon behar biltzen da bertan. Oinarrizko agindu hau ez betetzearen ondorioz sortzen da zuzenean irregulartasunaren kategoria juridikoa, eta hori izango da sektore arau-emailearen ezaugarri. Bestalde, bideragarritasun-printzipioak baimen horiek, eta horiekin batera legezketasuna, lortzeko bidea bizitza-proiektu batek Espainian duen bideragarritasun ekonomiko eta soziala frogatzea dela mamitzen du.

Gaur egun indarrean dagoen Espainiako atzerritartasun-zuzenbidearen koadroa osatzeko garrantzi izugarria duen datua zera da, haren garapenak izan dituen 17 urte hauetan arautzeko lau "ohiz kanpoko" prozesu izan direla (1985, 1991, 1996 eta 2000/2001), eta horrek administrazio-espeditate kopuru oso handiaren ebazpena ekarri du, eta horrenbestez, ordurako Estatuaren lurraldean zeudenez erregulartasuna lortzeko aukera izan dute. Prozesu horietaz gain, kontuan izan behar da aldi berean beste zenbait mekanismo arau-emaile ere izan direla, guztiak ere helburutzat irregulartasun-egoeraren eraginpeko atzerritarren egoera arautzeko helburu berarekin. Prozesu hauek tarteka-tarteka azaldu arren, sistemak ez du lortu egoera irregularrean dagoen atzerritar kopuruak gorabehera nabarmenak ez izatea.

2.4.2. Arau-emailea ez den ekintza publikoa

Ikuspuntu betearazleari dagokionez, Estatuaren eskumenak Barne Ministerioaren, Kanpo Arazoetako Ministerioaren, eta Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioaren artean banatu dituzte. Horiek koordinatzeko, bada 1995az geroztik Atzerritartasuneko Ministerio arteko Batzorde bat. Era berean, inmigrazio eta atzerritartasunerako Estatu Idazkaritza sortu zuten 1999an, Barne Ministerioaren menpekoa. Autonomia Erkidegoekin eta tokiko entitateekin izan beharreko erakunde arteko koordinaziorako ere bada 2000az geroztik Inmigrazio Politikako Kontseilu Nagusi bat.

Azkenik, parte-hartze organikoari dagokionez, Estatuan dagoen erakunde nagusia Etorkinak Gizarteratzeko Foroa da, 1995ean sorturikoa arlo horretako kontsulta-organo goren gisa; atzerritar taldeen ordezkarietarako, eta gizarte hartzailerean erakundeek eta gizarte-eragileek parte hartzen dute bertan.

Estatuko jardunari dagokionez, orain arte bi plan orokor izan dira inmigrazioari buruzkoak. Lehenaren ondorioz, 1994an onaturikoa, etorkinak gizarteratzeko Foroa eta Inmigrazioaren Behatoki Iraunkorra sortu zituzten. Plan horren ordezkari Greco Programa (Espainiako Atzerritartasuna Arautu eta Koordinatzeko Programa Orokorra) deiturikoa jarri zuten, 2001-2004 denboraldian aplikatzeko.

2.5 AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MARKO POLITIKO ETA ARAU-EMAILEA

Autonomia Erkidegoek inmigrazioari buruzko politika sektorialak garatu dituzte euren eskumen-eremuetan, batez ere gizarte-ongizatean, etxebizitzan, hezkuntzan eta osasunean. Autonomia Erkidego askotan, administrazio-egiturek neurri bateko dedikazioa eskaini diote inmigrazioaren gaiari, eta beste askok gizarte parte-hartzeko Foro autonomikoak sortu dituzte horretarako eratzen diren politika publikoetan. Era berean, hainbat Erkidegok etorkinen gizarteratzearen mesederako Planak dituzte 2001az geroztik. Plan horien filosofia, egitura eta metodologiek aldaketa ugari dituzte Erkidego batzuetan eta besteetan.

EAEri dagokionez, lehen aipaturiko gai sektorialak haren erakunde komunei eskusiban ez dagozkiola adierazi behar da lehenik, barne-harremanen bideko prozesu deszentralizatzailearen arabera. Ildo horretan, gizarte-ongizatearen eremuak du eskumen-deszentralizaziorik handiena kudeaketari dagokionez, EAE osatzen duten Lurralde Historikoetako eta Udalerrietako erakundeen esku-hartzetuzuzenarekin.

Era berean, EAEk bere gobernu-egitura errealitate berrira egokitu du, 2001. urtean berriazko Inmigrazio Zuzendaritza sortu baitzuen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren barruan; besteak beste, eta otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuari jarraiki, inmigrazioaren arloan Estatuarekin eta bestelako Herri Administrazioekin koordinatzeko mekanismoak eta tresnak proposatzeko eginkizuna du.

Bestalde, orain arte atzerritarren taldearen eskubideen arloko berriazko plangintzarik ez dagoen arren, zenbait urte dira euskal jardun publikoak pobrezia eta gizarte-baztertearen aurkako politika aktiboa duela, eta hori oinarri garrantzitsua da abiapuntutzat hartzeko. Ikuspuntu arau-emaileari dagokionez, politika hau behar bezala planifikatuta dago eta baliabide garrantzitsuekin hornituta, Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legea, Gizarte Baztertearen aurkako 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideei buruzko 10/2000 Legea tarteko. Baztertearen aurkako politika horrek pertsona guztiak gizarteratzeko aukera lortzea du oinarritzat, haren giza duintasunaren ezagumendua eta bermea abiapuntutzat hartuta, eta hortaz, Plan hau lantzeko oinarri arau-emaile eta politikoaren lanak ere betetzen ditu.





Definizio-alderdia



Definizio-alderdia

1. PLANTEAMENDUA ETA OINARRI IDEOLOGIKOAK

Inmigrazioari buruzko Euskal Planak inmigrazioko politiko instituzional orokorra egituratu du lehen aldiz gure Autonomia Erkidegoan. Era berean, inmigrazio-politika eraginkor eta bidezkoa gauzatzeko oinarritzko zenbait planteamendu argitzea eskatzen du, baita hari eusteko zenbait premisa ideologiko aurreratzea ere. Ildo horretan, Inmigrazioari buruzko Euskal Planak ikuskera progresista du oinarri, funts ideologikotzat guztien giza eskubideak babesteko kultura zabal eta aurreratua du. Plan osoaren funts edo oinarri ideologiko horrek lau oinarritzko kontzeptu biltzen ditu:

- a) Inmigrazio-kontzeptua
- b) Gizarteratze-kontzeptua
- c) Herritartasun-kontzeptua
- d) Euskal Inmigrazio Politikaren kontzeptua

1.1. INMIGRAZIO-KONTZEPTUA

- ▶ **Inmigrazioari buruzko Euskal Planak gizarteratzea fenomeno positibo eta beharrezkotzat hartzen du abiapuntutzat. Inmigrazioa funtsezkoa da euskal gizartearen aberastasun-iturri gisa, eremu ekonomikoan zein kultur alderditik begiratuta. Inmigrazioa eta gure gizartearen arian ariko aniztasuna hura modernizatzeko faktore ere badira, europartu eta dinamizatzeko, gure inguruneko beste herrialdeetako gizarte moderno garatu eta askotarikoetara hurbiltzeko.**
- ▶ **Gizarte-bizitzaren maila guztietako gizarte-prozesu askotariko eta aberasgarriaren zati da inmigrazioa, eta ez dugu lan-arloari soil-soilik dagokion fenomenotzat ikusi behar ikuspuntu murriztutik begiratuta.** Emigrazioa instrumentala soilik den ikuspegitik begiratzeak, eskulan propioaren eskasiak eragindako beharrezko osagarri gisa, murriztailea izateaz gain, gerora gizarte-desoreka larriak sortuko ditu, gizarte-elkarbizitza bidezko eta harmonikoa lortu nahi bada.
- ▶ **Egiturazko fenomeno da inmigrazioa gizarte modernoetan. Prozesu dinamiko eta jarraitua da inmigrazioa, eta politika publikoek ezaugarri horietara egokitu**

beharra daukate. Sektore publikoak eta gizarteak oro har euren giza oinarria eta oinarri demografikoa behin betirako zabalitzen duela hartu behar dute kontuan, gizarte-mugikortasun handiagoaren erakusgarri.

1.2. GIZARTERATZE-KONTZEPTUA

- ▶ **Bi noranzkoko kontzeptua da gizarteratzea**, inmigraturiko biztanleriaren eta jatorrizko biztanleriaren elkarren arteko egokitzapen-prozesu dinamikoa eskatzen duela. Era berean, alde askotariko egokitzapena ere bada, inmigrazioaren eta gizarte-mugikortasunaren nondik norako etengabe eta polifazetikoak hainbat egokitze eta oreka prozesu eskatzen ditu, egiaz integraturiko eta guztiek berezko dituzten giza eskubideak errespetatzen dituen gizartea egituratzeko moduan.
- ▶ **Gizarteratzeko ildo beharrezkoa da kulturartekotasuna**. Gizarteratzeak, ikuspuntu kultural edo politikotik begiratua, ez du nahitaez zertan izan nortasunen uztartzea, eta are gutxiago harrerako gizartean beste kulturak asimilatzea. Gizarteratzearen kontzeptu aurreratuak hainbat nortasun berdintasunean libreki garatzeko aukera eskatzen du, baita elkarren arteko ekintza eta harreman prozesua ere. Kulturartekotasunak ez du nortasun mistoen eraikuntza edo nortasun propioetara nahitaez gaineratzea bideratzen, baizik eta nortasun konplexu eta konposatuak sortzea, guztion ongia guztien pertsonalitatearen garapenarekin uztartzeko moduan.
- ▶ **Inmigraturiko guztiak gizarte hartzailearen kulturetan erabat eta libreki gaineratzeko aukera da gizarteratzea**. Horretarako, politika publikoek inmigratzen dutenek horietan parte hartzeko duten eskubidea bideratu eta bermatu behar dute, atxikimendu librearen ondorioz eta ez asimilazio-prozesuaren emaitza soil gisa.
- ▶ **Gizarteratzea bateraezina da irregulartasunaren kategoria juridikoarekin**. Irregulartasunaren egoera juridikoa egiturazko eragozpena da gizarte integratua lortzeko.
- ▶ **Herritartasuna aintzat hartzea eskatzen du gizarteratzeak**. Benetakoa gizarteratzea ez da lortzen zenbait gutxieneko zerbitzu ziurtatuta, baizik eta eskubideak aintzat hartuta, betebeharrak nor bere gain hartuta eta etorkinak komunitate politiko hartzailean barne hartuta. Ildo horretan, gizarte integratuaren helburua ezin da lortu soilik kultura arteko politiken uztartzearen bidez gehi gizarte eta ekonomia eremuetako mailegu-jarduna erantsiz.

Erabateko gizarteratzeak atzerritarra komunitate politikoan gaineratzeko aukera eskatzen du, eta horretarako herritartasun-estatutu berria aintzat hartu behar zaio, nazionalitate-alderditik berezita.

- ▶ **Gizarte-erantzukizunez hartu behar da gizarteratzea.** Erabat beharrezkoa da gizarteratzearen kudeaketa egokiarekin loturiko gaiak adostasun zabala izatea eta indar politikoen, gizarte sektoreen eta abarren interes partikularrak gainditzea. Gizarteratze horretako politika jorratu eta eztabaidatu egin behar da, baina guztien ongiak erantzukizun konpartitua eskatzen du, helburu nagusizat epe luzerako plangintza hartuta, bai eta etorkinak aztergai nagusi dituen kudeaketa ere, eskubide osoko herritarrak direnez.

1.3. HERRITARTASUN-KONTZEPTUA

- ▶ **Herritartasun-kontzeptua berriz definitzea eskatzen du gizarteratzeak.** Ildo horretan, Inmigratioari buruzko Euskal Planak herritartasun-kontzeptu barne-hartzailea gaineratzea ahalbidetuko du, EAEren eskumen-eremuan Estatuaren antolamendu juridikoan bilduriko herritartasun-kontzeptu klasikoa berriz formulatzeko moduan. Premisa hau hartzen da abiapuntutzat: ezin da gizarteratze efektiboa lortu bertan bizi diren etorkinei herritar izatea aintzat hartu gabe, eta ondorioz, EAEko herritar izateak ematen dituen eskubide eta betebehar guztiak dituztela onartu gabe.
- ▶ **Herritartasun berria baliatzeko eskaturiko lotura egoitza da.** Herritartasun-kontzeptu berriak zentzu klasikoko naziotasuna alde batera utzi behar du, baita beste edozein nortasun-elementu ere, eta izatezko egoitza soilik behar du izan oinarri.
- ▶ **Herritartasun barne-hartzaileak estatutu bateratua eskatzen du titular guztientzako.** Ildo horretan, nazionalak zein atzerritarrak erabat parekatuta daude beharrezko giza eskubideen gutxieneko eremuan: eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, baita gizarteratze erabateko eta efektiborako betebeharrak ere. Eskubideen aintzat hartzetik bideraturiko ikuspegiak gizarteratze politikoko plusa eskatzen du prestazio korrelatiboen berme hutsarekiko.
- ▶ **Herritartasun barne-hartzaileak erregulartasun eta irregulartasunaren arteko administrazio-aldea bazter uzten du.** Atzerritartasun-zuzenbidearen arabera baimentze legal edo administratiborik ez izateak ez du haren estatutu nagusia baliogabetzen edo aldatzen, funtzio integratzailea ziurtatuz

- ▶ **Herritartasun barne-hartzaileak sektore publikoak gizarteratze-prozesuan duen erantzukizuna eskatzen du.** Herritartasunak baliatzeko aukera ematen duen gutxieneko eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren prestazioen kudeaketa sistema publikoak egin beharko du horren guztiaren arabera.
- ▶ **Herritartasun barne-hartzailea sakontze demokratikoko tresna da, parte-hartze politikoa tarteko.** Hainbat gizarte-sektorek gizarteratze-politiketan parte hartzeak ez ditu murriztu behar gizarte-Estatuak eskainitako bermeak. Aitzitik, Zuzenbideko gizarte-Estatuaren demokratizazioa eskatzen du, parte-hartze handiagoa eta partekaturiko erantzukizuna planteatzen du arloko erabaki publikoak hartzeko.
- ▶ **Herritartasun barne-hartzaileak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du.** Ildo horretan, eskubide-berdintasuna ez da soilik etorkinen eta nazionalen artean planteatzen, baita ere, logika berari jarraiki, nazionalizatu gabeko herritarren taldearen barruan eta generoen arteko berdintasunean ere. Berdintasun materiala ere gaineratuko da erreferentziazko balio gisa.

1.4. EUSKAL INMIGRAZIO POLITIKAREN KONTZEPTUA

- ▶ **Euskal Inmigrazio Politikak giza eskubideak zabal aintzat hartzean oinarritzen da.** Politika horrek ez ditu ezein kasutan urratzen eskaturiko gutxieneko mailak Estatuaren eta Europar Batasunaren antolamendu juridikoetan ezarritakoaren arabera, eta edozein kasutan ere horiek zabaldu egiten ditu maila kuantitatibo kualitatibo edo subjektiboan. Pobreziaren eta gizarte-baztertzearen aurkako Euskal Politikaren kasuan bezala, erreferentziazko puntu nagusia gizarte hau osatzen duten guztien giza duintasuna da.
- ▶ **Euskal Inmigrazio Politikak EAEren eskumen-eremua du oinarri.** Atzerriartasun, nazionalitate eta inmigrazio arloko Estatuaren eskumena berriz aztertu behar da Europaren eraikuntza eta Autonomia Erkidegoek sektore-eskumenak euren gain hartzea direla-eta, oso gainbeheratuta baitaude nazioz gaindiko zein nazioz azpiko eremuan. Era berean, Estatuaren ikuskera klasikoak ez du barne hartzen herritartasun-kontzeptuaren erreferentziarik. Bestalde, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9. artikulua da oinarri nagusia eskubideak zabaldu nahi izateko eskumen-eremu propioei dagokienez, betiere Estatuaren osotasunerako antolamenduak finkaturiko gutxienekoak errespetatzen badira. Eskubideen aintzat hartzea zabaltzeko aukera eta herritartasun barne-hartzailearen kontzeptu berria hartzea EAEren eskumen-eremuan sartzen dira. Era berean, EAEk eskumenak ditu ildo horretako legegintza-garapenerako,

hainbat xedapen arau-emaile tarteko gauzatu ahal izango direnak, betiere helburutzat atzerritarren gizarteratzea, eta euskal herritar gisa euren eskubideak aintzat hartu eta zabaltzea badute.

- ▶ **Euskal Gizarteratze Politikan kokatzen da Euskal Inmigrazio Politika.** Izan ere, etorkin-taldea zentzurik zabalenean gizarteratzeko aukera lortzea da helburua, eta horretarako oztopo dira arloari buruz Estatuaren araudian zehazturiko hainbat alderdi. Hori dela-eta, Euskal Inmigrazio Politikak gizarteratzearen mesederako mekanismoak ezartzen ditu, irregulartasun-egoerak eragindako efektu negatiboak deuseztatu edo arintzeko. Bereziki, politika horrek estrategiak gaineratzen ditu egoiliar guztiak herritartasun-mailan parekatzeko, euren administrazio-egoera alde batera utzita. Era berean, politika hori EAEk pobrezia- eta gizarte-baztertzearen borrokaren arloan garaturiko politikarekin lotzen da, hura ere Euskadin elkarrekin bizi diren guztien duintasunaren errespetu eta garapenean oinarriturikoa.
- ▶ **Politika zeharkako eta alderdi askotarikoa da Euskal Inmigrazio Politika.** EAE egituratzen duten printzipio politikoek bideratzen dute politika hori. Bereziki, Euskadiren errealitate instituzional eta sozial askotarikoak du horretan eragina. Hori dela-eta, erakunde publiko guztiek partekaturiko erantzukizunetik egituraturiko politika dugu, autonomiaren eta koordinazioaren irizpideak tarteko.
- ▶ **Euskal gizartearen borondatek dator Euskal Inmigrazio Politikaren legitimitatea.** Euskal gizartearen zati handi batek berak babesten du giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren ikuskera jakin bat bere jardun publikoaren oinarritzat. Ildo horretan, garrantzitsua da euskal gizartearen kultura politiko altuari eustea, eta horren ondorioz garrantzitsua da Euskal Inmigrazio Politika inmigraturiko talderantz ez ezik, gizarte hartzailearentz ere bideratzea, batez ere sentsibilizazioa tarteko.
- ▶ **Iparralde-Hegoaldea gatazkarekin loturiko inmigrazio-kontzeptua du abiapuntutzat euskal politikak.** Herrialde batzuen eta besteen arteko aberastasun-aldea onartezina dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek lankidetzara politika konprometitua garatu dute Hegoaldeko gizarteekin. Ildo honetan, inmigrazioa bera neurri handi batean munduaren desorekaren ondorio denez, Euskal Inmigrazio Politikak Garapenerako lankidetzara-politikarekin, eta euskal erakundeetatik eta euskal gizarte beretik garaturiko elkartasunarekin garatu behar du.

2. HELBURU NAGUSIA

Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren helburu nagusia etorkin atzerritarrak euskal gizartean erabat gizarteratzeko aukera lortzea da. Horretarako, funtsez-funtsezkoa da nazionalitatearengatiko edozein diskriminazio baztertzea eta giza eskubideak betetzeko aukera bermatzea: zibilak eta politikoak zein ekonomiko, sozial eta kulturalak, baita betebeharrak nork bere gain hartzea ere.

3. PRINTZPIO GIDATZAILE FUNTSEZKOAK

Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren Printzipio Gidatzaile Funtsezkoak haren edukia bideratzen duten oinarrizko irizpide politikoak dira, betiere kontuan hartuta propio beharrezkoak eta nahikoak direla Planaren helburu nagusia lortzeko. Planaren edukira zuzenean bideratuta eratzen diren neurrian dira funtsezkoak, eta alde zuzenetik adierazitako premisa ideologikoetatik ondorioztatzen direla ere kontuan izanda. Ez dira antolamenduko irizpide instrumentalak, baizik Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren oinarri ideologikoen eta haren helburu nagusiaren beharrezko ondorioak.

Gizarteratzeko helburu nagusia lortzeko, beharrezkoak eta nahikoak dira ondoko printzipio gidatzaile funtsezkoak:

- a) Berdintasun-printzipioa
- b) Erantzukizun Publikoaren printzipioa
- c) Gizarte parte-hartzearen printzipioa

3.1. ESKUBIDE-BERDINTASUNA

- ▶ Berdintasun-printzipioak giza eskubideen hedapen handiena eskatzen du EA Eren eskumen propioen esparruan. Horrek ez ditu eskubide zibilak soilik eraginpean hartzen, baita eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak ere; egoiliar guztientzako orokortzen dira, euren nazionalitatea alde batera utzita, baita eskubide politikoak ere Erkidegoaren antolamendu juridikora gaineratu daitezkeen neurrian. Betebeharren berdintasuna ere eskatzen du, inolako bereizketarik egon ez dadin.

- ▶ Berdintasunak Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko batean aintzat harturiko eskubideak bermatzen dituzten prestazioak eta zerbitzuak berdintasunean baliatzeko aukera ere eskatzen du, orokortu daitezkeen premietarako normalizazio printzipioaren eta etorkin-taldearen berariaz-berariazkoak diren premien espezializazio-printzipioaren bidez.

Berdintasun-printzipioa osoa da gutxieneko estaldura-eremuan nazionalak eta atzerritar egoiliarrek parekatzeari dagokionez, eta baita atzerritarrek euren artean parekatzeari dagokionez ere. Printzipio berak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eskatzen du, eta generoaren gaia behar bezala bideratu beharra. Hau da, desberdintasunak ezabatzeko helburua gaineratzea, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea inmigrazio-arloan Erkidegoak gauzatzen dituen politika eta ekintza guztietan. Horretarako, Inmigratioari buruzko Euskal Plan hau zehaztu, burutu eta ebaluatzerakoan gizonaren eta emakumearen baldintza, egoera eta premiak kontuan hartu beharko dira sistematikoki, eta batez ere boterea, eta baliabide ekonomiko eta sozialak baliatzeko emakumeek duten desberdintasun-egoeraren ondoriozkoak.

- ▶ Berdintasun-printzipioak ez du berezitasunerako eskubidea murrizten, baizik eta indartzen. Gaineraturiko balioa ez da berdintasun formal hutsa, baizik eta gure antolamendu juridikoak biltzen duen berdintasun materiala bera. Egoera desberdinetarako tratu berezia legitimatzen du horrek, emaitza-berdintasun egiazko eta efektiboaren mesedetan, bana-banako zein taldeko alorrean. Desberdintasunerako errespetuak garrantzi berezia du hizkuntzaren eta kulturaren eremuetan, eta esku-hartze publiko handia eskatzen du jatorrizko kulturak babestu eta garatzeko zein horiek euskal kulturari integratzeko.

3.2. ERANTZUKIZUN PUBLIKOA

- ▶ Inmigratioari buruzko Euskal Plana honako oinarri honen gainean eraikiko da: gizarteratzea botere publikoen erantzukizuna da. Eskubide eta betebeharren berdintasun-printzipioarekin uztartzen da ikuspegi hau, gizarteratze hori komunitate politiko hartzailean bizi diren atzerritarren barne-hartzearekin soilik lor daitekeen neurrian, eta horrek nahitaez kolektibitatearen beraren talde-erantzukizuna eskatzen du gutxieneko berdintasuna gauzatzeari dagokionez. Horrela, erantzukizuna neurri berean zabaltzen zaie etorkin-taldeari eta bertakoen taldeari, elkarren gizarteratze horren gutxieneko parametro hori lortzeari begira.

- ▶ Erantzukizun publikoaren printzipioak alderdi instrumentala gaineratzen dio berdintasun-printzipioari hura egiteko, baina aldi berean Planaren beraren funtsezko elementua da, jarrera publiko integratzailea islatzen duen neurrian; normalizazio-printzipioaren bidez egituratuko da orokortu daitezkeen premietarako zerbitzuak emateari dagokionez, nazionalitatea edo haien hartzaillearen egoera juridikoa alde batera utzita.
- ▶ Botere publikoek etorkin-taldea gizarteratzeko duten erantzukizunak ez du erabat agortzen arlo horretako esku-hartzea, printzipio hori gizarte parte-hartzearekin osatu behar dela kontuan hartuta. Horrenbestez, botere publikoek parte hartzeko espazio ahalik eta zabalenak ere bermatu behar dituzte eskubideen berme gutxieneko eta normalizatuan.
- ▶ Erantzukizun-printzipiotik eratortzen dira zuzenean printzipio gidatzaile operatiboak, sektore publikoaren jarduna nola eta zein ildotan antolatu behar den horien arabera egiten dela kontuan hartuta..

3.3. GIZARTE PARTE-HARTZEA

- ▶ Gizarte parte-hartzearen printzipioak alderdi instrumentala gaineratzen dio berdintasun-printzipioari hura gauzatzeko, baina aldi berean Planaren beraren funtsezko elementua da, gizarteratze-prozesuaren oinarrizko ildoak gaineratzen duen neurrian. Erantzukizun publikoa esku-hartze instituzionalaren beharraren ondorio bada, parte-hartzea, berriz, etorkinen, horiek osatzen dituzten taldeen eta gizarte hartzaile beraren eskueran dagoen gaitasuna izango da.
- ▶ Parte-hartzearen printzipioa honakoan oinarritzen da halaber: politiken hartzaileak izango diren taldeek ere parte hartu beharko dute politika publikoak landu eta kudeatzeko garaian. Marko horretan, EAEn finkaturiko etorkin-taldeak dira parte-hartzearen subjektu nagusiak, parte-hartzea gizarte osoaren eskubidea bada ere
- ▶ Gure sistema politiko eta instituzionalaren sakontze demokratikoa dakar. Gizarte demokratiko aurreratuak ahalik eta parte-hartze mailarik handiena gaineratu behar du gai publikoetan, gizartean kultura parte-hartzailea sortuz, erabakian eta kudeaketan, eta elkartasun aktiboan konpartituriko erantzukizun-ideiak sendotzeko moduan.
- ▶ Parte-hartzearen printzipioak ez du soilik eskubide politikoaren alorra barne hartzen, baita berdintasun-printzipioak biltzen duen eremua ere. Bereziki, parte-hartzeak proiektio handiagoa du kulturartekotasunaren eremuan.

- ▶ Inmigratioari buruzko Euskal Planak parte-hartzearen ideia zabala eta polifazetikoa gaineratzen du; politika publikoko parte-hartzea bide organikoa, funtzionala edo kooperatiboa tarteko barne hartzen du, baita etorkinen beraien jabeakuntza lortzea ere, horiek ordezkatzeko dituzten taldeak tarteko, edo harrerako gizarteraren sektoreak tarteko, gizarteratzearen helburu nagusia betetzeko.
- ▶ Etorkinen gizarteratze-prozesuan harrera-gizarteak duen parte-hartzeak, egituratzeko espazio egokia du boluntariotza kritikoa oinarrituta funtzionatzen duten gizarte-mugimenduetan. Boluntariotza kritikoa funtsezko elementua da gizarte parte-hartze eraginkorra lortzeko, bai eta haren tresnarik baliagarriena ere.

4. PRINZPIO GIDATZAILE OPERATIBOAK

Euren helburu nagusia lortzeko aukeraturiko metodologia eta prozedurak biltzen dituzten irizpideak dira Inmigratioari buruzko Euskal Planaren printzipio gidatzaile operatiboak. Antolamendu-irizpide instrumentalak dira, arestian adierazitako printzipio gidatzaile funtsekoen aplikazioak eskaturikoaren menpe daudela.

Hori dela-eta, Inmigratioari buruzko Euskal Planaren printzipio gidatzaile operatiboak berdintasunaren eta erantzukizun publikoaren funtsezko printzipioen beharrezko ondorio dira, eta horrenbestez, Plan horretan barne harturiko sektorea antolatze modua biltzen dute oinarrian.

Ondoko printzipioak erortzen dira Inmigratioari buruzko Euskal Planaren helburua betetzeko beharrezkoa den esku-hartze publikoko eredutik:

- a) Osotasun-printzipioa
- b) Prebentzio-printzipioa
- c) Normalizazio-printzipioa
- d) Deszentralizazio-printzipioa
- e) Koordinazio-printzipioa
- f) Ebaluazio-printzipioa

4.1. OSOTASUNA

Inmigrazioari buruzko Euskal Planak inmigrazio-fenomenoaren antolamendu orokorra du helburu, erabateko gizarteratzearen mesedetan. Hori dela-eta, Euskal Inmigrazio Politikaren egituraketak zeharkakotasuna eta multilateralitatea hartzen ditu kontuan, eta EAEn jarduten duen sektore publiko guztia hartzen du eraginpean eta konprometitu ere konprometitzen du. Gizarteratzearen erregulazio edo kudeaketa partzial edo zatikatuak gizarteratze osoa lortzea saihesten du.

4.2. PREBENTZIOA

Inmigrazioari buruzko Euskal Planak ez ditu soilik politika publikoak modu ordenatu eta sistematikoan egituratzen. Plangintza ere badu helburu, gizarte errealitatean zein planaren beraren kudeaketan gerta litezkeen eragin kaltegarriak edo disfuntzioak prebenitzearen eta ahal den neurrian saihestearen mesedetan.

4.3. NORMALIZAZIOA

Berdintasunaren eta erantzukizun publikoaren funtsezko printzipioak egituratzeak etorkinen taldearen gizarteratzea lortzeko beharrezkoak diren prestazioak eta zerbitzuak mailarik altuenean normalizatzeko premia eskatzen du. Oroker daitezkeen premiei dagokienez, normalizazioa ezinbesteko jardun-ardatza da Inmigrazioari buruzko Euskal Planean. Prestazio-jarduera publiko gehienetarako proposatzen den erro-erroko normalizazio hau espezializazio-printzipio subsidiario batekin osatu behar da argi eta garbi ezin orokortu daitezkeen premien kasuetarako, betiere gizarteratzeko beharrezko konpentsazioak badira. Edozein kasutan ere, normalizazioaren subsidiarioa da espezializazioa, eta erantzukizun publikoaren eremuan dago kokatuta hori ere.

4.4. DESZENTRALIZAZIOA

Euskal Inmigrazioaren Politika EAeko hainbat administrazioen eta eremu instituzionalen erantzukizuna da. Sektoreetako eskumen-banaketan zeharkako eragina du politika horretan. Horren arabera, erakunde komunek, lurralde historikoek, eta udalerrri eta mankomunitateek eskumen jakinak eta zuzenekoak

dituzte arloan. Inmigratioari buruzko Euskal Planak ez du murrizten gure Erkidegoaren deszentralizazio-politika. Aitzitik, prestazio publikoen zati handi bat, eta bereziki inmigratio-prozesuko lehen harrera eta orientazioa toki edo udalerriko kudeaketaren eremuan kokatzen da, subsidiaritate-printzipio osagarriaren arabera.

Era berean, EAEko administrazioen, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen arteko eskumen-banaketaren berezitasunak inmigratio-arloan garatzen dituzten funtzioen egokitzapena behartzen du, Administrazio guztien jardun-ahalmena Inmigratioari buruzko Euskal Planaren helburu nagusira egokitzeko.

4.5. KOORDINAZIOA

Inmigratioari buruzko Euskal Planak inplikaturiko eremu instituzionalen sistematizazioa eta koordinazioa ditu helburu euskal inmigratio-politika bat sortzeko, betiere xede bakartzat konpartituriko estrategiekin gizarteratzea duela. Horren haritik komunikazio-ildo egokiak bermatzeaz arduratzen da, hiru mailatan:

- a) Jaurlaritzaren Sail eskudunen artean.
- b) EAEko organo exekutibo komunen, foru-arlokoen eta toki-arlokoen artean..
- c) Inplikaturiko eremu publiko eta gizarte-taldearen artean.

Modu osagarrian, Eusko Jaurlaritzaren, Estatuaren Administrazioaren eta Autonomia Administrazioen arteko koordinazio-mekanismoak ezartzea aurreikusita dago, baita hari euskarri teknologikoa eta estrategikoa emateko lagungarri diren nazioarteko eremu eta erakundeetan presente egotea ere..

4.6. EBALUAZIOA

Erreminta malgua izateko bokazioarekin sortu da Inmigratioari buruzko Euskal Plana. Inmigratio-prozesua gertakari dinamiko eta aldakortzat definitu badugu, Inmigratioari buruzko Euskal Planak malgutasun-dosi egokia bildu behar du bere ezaugarrien artean, egokitzapena eta hobekuntza etengabea ahalbidetzeko moduan..

Planaren ebaluazio etengabea modu partzialean edo orokorrean egin ahal izango da.

- ▶ Ikuspuntu partzialetik begiratuta, Inmigrazioa Zuzendaritzak etengabe koordinatuko ditu bere ahaleginak zenbait organismorekin bakoitzak harturiko neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna aztertzeko. Organo arduradunek Plana betetzen ote den eta haren egokitasunaren ebaluazio etengabea egiteko prozedura eta adierazle egokiak erabakiko dituzte.
- ▶ Oro har, Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren ebaluazio etengabea izango da Erakunde eta Instituzio publikoen eginkizun nagusietako bat. Era berean, Gizarteratze eta Parte hartzeko Foroak bere iritzia eman ahal izango du Inmigrazioari buruzko Euskal Plana betetzen ote den edo ez esateko..

Dena dela, ikuspegi partzialetik begiratuta zein oro har, Planaren garapena zaindu eta gainbegiratzea, eta erreferentzia politikoetan, sozialetan, ekonomikoetan eta abarretan haietan oinarriturik izan litezkeen aldaketetara egokitzea izango da Inmigrazio Zuzendaritzaren oinarrizko eginkizunetako bat, baita hura eratzeko, burutzeko eta ebaluatzeko inplikaturiko gainerako erakunde eta instantziena ere, batez ere jarraitu eta ebaluatzeko sorturiko egituren kasuan.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Gobernu-kontseiluari aurkeztuko dio etorkinen urteko gizarteratze-txostena; Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren konpromisoen jarraipena bilduko du, eta Jaurlaritzaren Sail bakoitzaren ekarpena baloratuko du, baita dagoen osagarritasun eta koordinazio maila ere, Planaren adierazleak eta helburuak kontuan hartuta.

5. EBALUAZIORAKO HELBURUAK ETA ERREFERENTZIAK

5.1. HELBURUAK

Behin azken helburua eta gizarteratzeko eredu jakin bat osatzen duten printzipioak definitu ondoren, erdieste espero den lorpenak edo ondorioak zehaztea da kontua, bai eta lortze hori baloratzeko erreferentziazko adierazleak zehaztea ere..

Eremuak

Inmigrazio-arloko euskal politika etorkinen gizarteratzea erraztu behar duten ekintzetan uztartu beharreko egituren, eragileen, harremanen eta baliabideen sistema eratzeko ikuspegitik begiratuta, egokia dirudi lorpen-iguripenak identifika daitezkeen bi eremu bereiztea:

Sistema beraren kudeaketarena: egitura, koordinazioa, sinergiak, informazio-premiak eta abar esku-hartzeari euskarria etorkin atzerritarren gizarteratze-arloan.

Esku-hartzearena berarena, aktoreetan eta horiek gizarteratze-prozesuetan dituen eginkizunetan duen eragina ezarrita. Hiru talde handi biltzen dira: zerbitzu-sistema publikoak, gizarte hartzailea, biztanleria etorkina.

Izaera irekia

Inmigrazioari buruzko Euskal Planak erakunde eta gizarte-eragileen lankidetzaz ahalbidetzen eta sustatzen du bilduriko ekintzen zati bat garatzeko; horrek hainbat sentsibilitate, interes, aukera eta abar inplikatzeko ditu, baita heterogeneotasuna ere neurri horiek gauzatzeko

Hori guztia arazotzat baino gehiago aukeratzat hartuta, helburuen zein neurrien idazkuntzak lankidetzarako eta gauzatzeen aniztasunerako izaera ireki hori bilatu nahi du.

Izaera estrategikoa eta integratzailea

Aktoreen, zehaztapenen eta abarren aniztasuna eta neurri edo ekintzen zati baten sektore-izaera direla-eta beharrezkoa da erreferentzia argiak ezartzea, Planean inplikaturiko aktore guztiek erreferentzia horiek estrategia eta operatibitate mailan euren gain hartzeko moduan. Ildo horretan, planteaturiko helburuek lorpenak identifikatzeko eta bilduriko ekintzen garapen zehatzean gida-lanak egiteko zeregina bete behar dute.

INMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL PLANAREN HELBURUAK

KUDEAKETA	Herri-administrazioen eremuan izandako aldaketak eta jardunak biltzen ditu, EA Eren eremuan inmigrazio-arloko esku-hartzeen euskarri eta erreferentzia estrategikoa izango den sistema orokorraren egituratze, koordinazio eta elikadurarako.
------------------	---

HARTZAILEAK	Herri-administrazioak
--------------------	-----------------------

<p>ZEARKAKOAK</p> <p>Jardun-eremu guztiak hartzen ditu eraginpean eta inmigrazioa euskal errealitate politikoa eta administratibora gaineratzeko aukera biltzen dute, erronka eta aukera orokorra denez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Egituren, eragileen, eskumenen eta koordinazio-harremanen sistema egituratzea, haien gainean euskal inmigrazio-politika egituratuta. ▶ EA Eko inmigrazioaren errealitatea esku-hartze eremuen plangintzara eta zehaztapen-mailetan gaineratzea, zeharkako izaerarekin. ▶ Informazio, prestakuntza, finantzaketa, babes, laguntza tekniko eta hainbat arlotako baliabide-marko egonkorra garatzea inplikaturiko administrazio, sare, antolamendu eta eragileentzako. ▶ Atzerritarrek euskal bizitza sozial eta politikoan parte hartzeko ildo, mekanismo eta estrategiak garatzea, herritartasun-kontzeptu barne-hartzaitetik eratorritako eskubideak baliatzeko aukerari begira. ▶ Biztanleria guztiarentzako prestazio eta zerbitzu komunak berdintasunean baldintza normalizatuetan baliatzeko aukera ziurtatzea. ▶ Atzerritarrentzako arreta osagarri edo konpentsaziozkoaren markoa sustatzea arrisku eta ahultasun handiagoko egoeretan. ▶ Erakundeen, entitateen eta oro har euskal gizarte-mugimenduaren kanpoko kooperatiba-ekintza EA Eko atzerritarren gizarteratzearekin lotzea. ▶ Inmigrazioari dagokionez euskal gizarte osoa sentsibilizatzeko esku-hartzeak antolatu eta optimizatzea.
---	--

ESKU-HARTZEAK	Etorकिन harreran eta gizarteratzean esku hartzen duten elementu edo aktoreen jardun eta eginkizunean izandako aldaketak biltzen dituzte.
----------------------	--

HARTZAILEAK	Ondokoak bereizten dira
--------------------	-------------------------

BERARIAZKOAK Antolamendu, erreminta eta profil profesionalak dituzten bereizitako jardun-sektoreak biltzen dituzte: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak eta abar	ZERBITZU PUBLIKOAK	▶ Sarbide araudiak, kudeatu eta esku hartzeko prozesuak eta abar EAEn etorkinek duten arian-arian handiagoa den presentziak planteatzen dituen erronka berrietara egokitzea, eta haien eskubideak erabat aintzat hartzea herritartasun barne-hartzailearen kontzeptuaren markoan.
		▶ Zerbitzuetako profesionalak gaitzea aniztasun kulturala, hizkuntza-arlokoa eta abar errespetatzen dituzten ereduak eta erremintak gaineratzeko.
		▶ Dagozkion harremanak eta lankidetzak ezartzea biztanleria guztiaren premiei erantzuteko eta haietara egokitzeo ahalmena indartzeko.
	HARRERA-GIZARTEA	▶ EAEko inmigrazioaren errealitatea eta gizarteratzeko dituzten oztopoak ezagutzea.
		▶ Kultur aniztasuna eta hainbat kulturak elkarrekin bizitzeak dakarren aberastasun-potentziala modu positiboan baloratzea.
		▶ Etorकिन gizarteratzearekin eta kultura guztien arteko berdintasun-trukearekin antolaturiko konpromisoa garatzea.

(jarraipena)

BIZTAN- LERIA ETORKINA	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Gizarte-antolamendua, euren eskubide eta betebeharrak, eta horiek erabat eta berdintasunean baliatzeko aurreikusitako prozedurak ezagutzea.
	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Eragile aktibo gisa parte hartzea euren gizarteratzean inplikaturiko instantzia eta prozesuetan, euren jatorrizko herrialdeekiko lankidetzaren barne hartuta.
	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Euren elkarrizketa, ordezkaritza eta sareetarako integrazio sistemak indartzea sakontze eta parte-hartze demokratikoetarako erreminta gisa.

5.2 EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Helburuekiko modu osagarrian, adierazle-multzoa eranstean dugu hasierako ebaluazio-markoa eskaintzeko asmoarekin, Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren ebaluazioa inplikaturiko instantziekin osatu, doitu eta hobetu beharrekoa.

Adierazleei buruzko zenbait kontsiderazio.

Eremuak

Hainbat neurri eta ekintza zehaztea beharrezkoa bada ere, Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren inpaktuaren balorazioa ez da murriztu behar horien garapenean mugaturiko lorpenak egiaztatzen: zenbait ekintzek ezin dituzte izan aurreikusitako garapena eta emaitzak, egin gabe ere gera daitezke, baina horien inguruan harremanak, egiturak, sareak, baliabideak eta abar osatu litezke, ekintzak berak bezain baliotsuak edo gehiago.

Horrenbestez, arrazoizkoa dirudi Planean bilduriko ekintzei buruzko adierazleen eta helburuei buruzko adierazleen (balizko inpaktu orokorrari lotuagoak) arteko bereizketa egitea.

- ▶ lehenak banan-banan kontsideraturiko neurrien burutzapenetik abiatuta aurreikusitako, espero ziren eta nahi ziren eraginak jarraitu eta baloratzeko

- ▶ bigarrenak identifikaturiko hartzaileetan izandako inpaktu orokorraren jarraipena eta balorazioa errazteko

Etengabeko hobekuntza

Oreka egokiari eutsi nahi izan zaio bere izaera finalistaren (lorpena eta gauzatze efektiboak baloratzen dituen zentzuan) eta gerorako planak oinarritzeari begira duen hobekuntza-erremintaren izaeraren artean. Hori dela-eta, helburuei buruzko adierazleen hautaketak eta idazkuntzak horiekin konpartitzen dute dimentsio estrategiko hori, dimentsioak, prozesuak eta abar biltzen dituzten neurrian; inpaktua ebaluatzeaz gain, informazioa biltzea ere komeni da horietan, hobekuntzak sartzeko aukerari eta gerorako plangintzei euskarria emateko.

Ildo honetan, ondoko eginkizunak betetzen dituzte adierazleek:

- ▶ emaitzen azken ebaluaziorako gida
- ▶ Planaren beraren garapenean hobekuntzak eta egokitzapenak sartzeko gida
- ▶ gerorako plangintza-prozesuen ebaluazio diagnostikorako gida

Parte-hartzea

Adierazle-multzoa aurkezteak orientazio orokorreko azalpena izan nahi du soilik; hori kontuan hartu behar bada ere, beharrezkoa eta komenigarria da planaren garapenean eta ebaluazioan inplikaturiko instantziek modu kritikoan aztertzea eta garatzea, euren iguripenen, interesen eta ezagutzaren arabera. Besteak beste, ondoko lankidetzak hauek handiak izan daitezkeela uste dugu:

- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Sailena; sektoreetako politikak eta euskal inmigrazio-politika batzeari begira.
- ▶ Foru Aldundi eta Udalerriena; ebaluazioaren eskakizunak eskumen-banaketaren errealitatera eta aurrekontu-koordinaziora egokitzeko.
- ▶ Zerbitzu publikoen sistemetako teknikariena; esku-hartze eremu bakoitzari buruzko adierazleak doitzeari begira.
- ▶ Foroarena, eta etorkinen eta haiek babesteko erakundeena; biztanleria etorkinari buruzko gizarte-adierazleak zehazteko.





Zati operatiboa



Zati operatiboa

1. LANTZE ETA INSTRUMENTAZIO PROZESUA

Eusko Jaurlaritzak inmigrazio-arloan garatu beharreko ekintzak eta neurriak biltzen dituen lehen Inmigrazio Plana lantzeak inmigrazio-fenomenoa erantzukizunez kontuan hartzeko ardurari erantzuten dio. Hori dela-eta, sailen egitura berriz ordenatu da, eskumen-esleipen berria eginda inmigrazio-arloan.

2002ko apirilaren 15ean, Gobernu Kontseiluak 2001-2005 legealdirako Jaurlaritzaren Plan, Programa eta jarduera esanguratsuen egutegia onartu zuen, Inmigrazioari buruzko Euskal Plana bertan barne hartuta.

Euskal Administrazioak inmigrazio-errealitatearen kudeaketan duen zeregina oro har finkatzen duen lehen aldia denez, ezagutzeko, kontrastatzeko eta gogoetarako alde aurreko fasea behar izan da. Horrek guztiak lantze-prozesua luzatu badu ere, oso modu positiboan baloratu da gerorako dituen inplikazioak direla-eta. Herritar berriak daudela garbi eta nabarmen ikusi da, eta horrek aurrerantzean gobernu-programetan inmigrazioaren errealitatea kontuan hartzen duten ekintzak eta neurriak gerora gaineratzea dakar. Euskal Administrazioaren esku-hartzearen hasiera markatzen du Plan honek, eta ebaluazio eta egokitzapen etengabeak beharko ditu, inmigrazio-fenomenoa fenomeno dinamikoa baita, eta plangintza honen helburua gizarte kulturartekoa eta kohesionatua lortzea baita.

Lantzean izandako parte-hartzea oso zabala izan da prozesu guztian, alderdi instituzionalari zein gizarte-arlokoari dagokionez. Ondoko une edo faseak nabarmendu litezke:

- ▶ Planaren ildo estrategikoak Eusko Jaurlaritzaren Sailei, Foru Aldundiei eta Udalei aurkeztea, eta ekarpena biltzea.
- ▶ Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuak "Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren Ildo Estrategikoak" dokumentua onartu zuen 2003ko otsailaren 13an. Bertan identifikatzen ziren esku-hartze neurriak lantzeko oinarri-lanak bete dituzten arlo eta norabideak.

- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Sailen ordezkariak ekintzarako neurriak eta proposamenak zehaztea, baita parte-hartze eta kontsultarako organoa eta abuztuaren 30ko 200/2002 Dekretuak sorturiko etorkin atzerritarren parte-hartze eta gizarteratzerako Foroa ere.
- ▶ Foroaren Lan Batzordeak egindako zehaztapenak eta ekarpenak; oso lan garrantzitsua egin dute, ez soilik euren ekarpen baliotsuak direla-eta, baita eremu sozialak eta instituzionalak batera koordinatzeko eta lantzeko duten ahalmena dela-eta ere. 2003ko ekaina, uztaila eta irailean garatu da lan-prozesua, eta inplikaturiko Sail, Organismo eta Erakundeak bildu dituzte ondoriozko proposamen gehienak.
- ▶ Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren lehen Zirriborrea lantzea, eta Eusko Jaurlaritzaren Sailerak, Erakundeak, Batzordeak eta Foroko kideei igortzea berriz aztertu eta zabaltzeko, epea irekirik dokumentua hobetzeko prozesu horretarako: 2003ko iraila.
- ▶ Arestian adierazitako instantziek aipaturiko ekarpenak eta aldaketak gaineratzea, eta Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren bigarren Zirriborrea lantzea. Berriz ere igortzea azken aldiz igortzeko eta aurrekontua zehaztea (2003ko urria).
- ▶ Aurkezpena, eta parte-hartze eta gizarteratzerako Foroaren aldeko txostena (2003ko urriaren 30).
- ▶ Gobernu Batzordeak onartzea ———

Azken batean, lehen Inmigrazioari buruzko Euskal Plan hau lantzeko izandako parte-hartze maila altua adierazi behar da berriz ere; bereziki baloratu behar da etorkinen elkarrekin Lan Batzordeetan parte hartu izana, atzerritarrez osaturikoa baita gizarteratze-prozesuan inplikaturiko zatietako bat, eta haien parte-hartzea funtsezkoa izan da Planaren helburuak lortzeko.

Era berean, Legebiltzarreko taldeekin, eta inmigrazio-arloan lan egiten duten gizarte-eragile, sindikatu, enpresa-erakunde eta elkarrekin konpartitu dugu eginiko lana.

Eranskin gisa biltzen dugu dokumentu hau lantzeko lagundu duten Sailen, Erakundeen eta elkarteen zerrenda xehatua.

2. ESKU-HARTZE ARLOAK

Esku-hartze eremuen edo arloen identifikazioak Inmigratioari buruzko Euskal Planaren aplikazioa egituratzea dakar eduki tematiko homogeen eta funtzioaletan ikuspuntu instituzioaletan. Ildo honetan, bi eremu edo arlo mota bereizten dira:

- a) Arlo instrumentalak.
- b) Arlo funtsezkoak.

2.1 ARLO INSTRUMENTALAK

Inmigratioari buruzko Euskal Plana betetzeko beharrezkoa den funtzionamendu instituzionala ziurtatzeko norabideak eta neurriak gaineratzen dituztenak dira arlo instrumentalak. Erakunde publikoak beraiek dira horien hartzaile nagusiak. Eremu horiek ez dituzte gaineratzen zuzenean gizarteratze-ekintzak, baizik eta euskarri egokiak ematen haiek arlo funtsezkoen markoan garatu ahal izateko. Erantzukizun publikoaren eta gizarte parte-hartzearen printzipio gidatzaileetatik eratorritzen dira batez ere arlo instrumentalak.

Inmigratioari buruzko Euskal Planak bi jardun-eremu instrumental bereizten ditu:

2.1.1. Erakunde-antolamenduko arloa

Euskal Inmigratio Politika garatzeko beharrezkoak diren organoak sortu eta antolatzea, eta dagozkien eginkizunak mugatzea barne hartzen ditu arlo honek. Beste zenbait norabide ere barne hartzen ditu, berariazko bitartekoak zuzkitzeko edo erakunde publikoen zerbitzupeko langileak prestatzeko.

2.1.2. Informazio-arloa

Plangintza egokiaren ondorio gisa ere inmigratio-errealitatea ezagutzeko aukera biltzen du eremu honek. Informazio hori partzialki edo orokorrean bildu ahal izango da, etenekin edo etengabe, eta Jaurilaritzak eragin dezake

zuzenean Inmigrazioaren Behatoki Etengabearen bidez edo kanpoko lankidetzen bidez.

2.2 ARLO FUNTSEZKOAK

Helburu integratzailea zuzenean ziurtatzeko norabideak eta neurriak gaineratzen dituzte arlo funtsezkoak. Etorkin-taldeak zein gizarte hartzailea dira eremu hauetan osaturiko neurrien funtsezko hartzaileak. Berdintasunaren printzipiotik eratorritzen dira batez ere arlo funtsezkoak, eta eskubide eta betebeharren aintzat hartzea abiapuntutzat hartuta ordenatzen dira zati handi batean..

Esku hartzeko hamaika funtsezko eremu bereizten dira, eta horietatik hamar lehenengoen barne-eremuari begiratzen diote eta hamaikagarrenak nazioarteko eremuari. Barne-proiektzioko beste eremu batek (gizarte-sentsibilizazioa) gizarte hartzailea du batez ere helburu. Azkenik, esku hartzeko azken eremuak inmigrazio-prozesuaren eta nazioarteko desberdintasunaren arteko lotura ezartzen du, eta euskal erakundeek kanpo-ekintzarantz proiektatzen da.

Horrenbestez, ondoko eskemaren arabera azaltzen dira hamaika arlo funtsezkoak:

Barne-proiektzioko arloak

ATZERRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN BERDINTASUNETIK ERATORRITAKO EREMUAK

2.2.1. Berme juridikoen arloa

Atzerritarren eskubide zibilak erabat ziurtatzeko berriazko berme juridikoak behar dira, gure antolamenduan haiek duten izaera juridiko bereziaren arabera. Arlo honetako esku-hartzearen arabera Estatuaren atzerritartasun-araudiak ez-nazionalaren egoera juridikoan eta haren oinarri-oinarrizko eskubideetan eragiten dituen ondorioak arindu nahi dira.

2.2.2. Parte-hartze politikoko arloa

Atzerritar egoiliarra euskal komunitate politikoko kide gisa aintzat hartzea inplikatzeko duen arestian adierazitako herritartasunaren kontzeptuari jarraiki, ahalik

eta maila handiengan bermatu behar dira eskubide politikoak. Euskal gizartean izango duten parte-hartzea ziurtatzeko zenbait norabide barne hartu dira, eskubideak norberak baliatzeko bidean edo atzerritar taldeen jabekuntzaren bidean..

2.2.3. Lan-arloa

Eskubide ekonomiko ezaugarrienak (batez ere lanerako ezaugarriak) ziurtatzeari buruzko eremu tematikoa dugu. Subjektua atzerritarra izanagatik lan-merkatuan sartzeko desoreka zuzentzea du helburu lan-arloak. Ildo honetan, berariazko prestakuntzarako zein zuzeneko lan-egituratzerako bererako norabideak barne hartzen dira.

2.2.4. Gizarteratzearen eta gizarte-baliabideen arloa

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eremuan giza baliabideen arlo bat eratuko da, eta horren bidez etorkinei gure gizartean dauden gizarte-estaldurako baliabideak libreki eta erabat baliatzeko aukera bermatuko zaie. Arlo honetan nabarmentzen da garbier deszentralizazioaren printzipioa, harrera eta gizarte-arloetako oinarritzko orientazioak EAEko udalerrietan dauden oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta toki-eremuko gizarte esku-hartzeko erakundeen bidez egiten baitira

2.2.5. Osasun-arloa

Atzerritarrek osasunerako duten eskubidea erabat betetzeko aukera ziurtatzeko esku-hartzeak gaineratzen dira arlo honetan, oinarritzko gizarte-eskubideetako bat baita, normalizazio-printzipioaren markoan.

2.2.6. Etxebizitza-arloa

Atzerritarrek etxebizitza duin baterako duten eskubidea bermatzeko esku-hartzeak biltzen ditu etxebizitza-arloak, hura oinarritzko gizarte-eskubidea denez.

2.2.7. Hezkuntza-arloa

Atzerritarrek hezkuntzarako duten eskubidea erabat betetzeko aukera ziurtatzeko esku-hartzeak gaineratzen dira arlo honetan, oinarritzko gizarte-eskubideetako bat baita, normalizazio-printzipioaren markoan. Jardun-eremuak

nahitaezko heziketa zein gure sisteman sektore publikoak emandako edo ziurtaturiko beste zenbait heziketa-ekintza biltzen ditu, batez ere helduen heziketa.

2.2.8. Kulturartekotasun-arloa

Kultur eskubideen arloan, dimentsio bikoitza du kulturartekotasun-arloak. Alde batetik, atzerritarrek euskal kultura erabat baliatzeko aukera ziurtatzea eta erraztea da kontua, batez ere EAEko bi hizkuntza ofizialak ikastea, gizareratze-prozesuaren zati gisa. Neurri berean, alor honetako esku-hartze publikoaren helburua zera da: atzerritarrek euskal kulturaren barruan euren kultura propioei eustea eta kultura horiek garatzea, eta aldi berean atzerritarrek gizarte-bizitzan modu aktiboan parte hartzea. Horretarako kultur sustapenerako, interesatuek beraiek euren jatorrizko herrialdeetako erakundeekin duten lankidetzarako eta kultur aniztasun horren adierazgarri diren organo edo taldeen jabeakentzarako norabideak gaineratzen dira, babes publikoa duen autonomia-giroa eduki dezaten, horrela euren kultur nortasuna libreki garatu ahal izan dezaten euskal gizartearen barruan.

2.2.9. Esku-hartze osagarriko arloa

Esku-hartze osagarriko arloa helburu dituen pertsonen berezitasunak identifikatzen du. Bertan bilduriko norabideek ekintza publiko osagarri edo konpentsaziozkoa ahalbidetu nahi dute, ahultasun handiagoan dauden atzerritar-talde jakinen gizareratzea ziurtatzeko. Horrelako taldetzat hartzen dira lagundu gabeko adingabeek osaturikoak, sasoikako langileak eta euren familiak, sexu-esplotazioaren biktima diren emakumezkoak eta gizonezkoak, eta askatasun gabeko atzerritarrak.

BATEZ ERE GIZARTE HARTZAILEARI ZUZENDURIKO EREMUA

2.2.10. Sentsibilizazio-arloa

Arlo honetan inmigrazioari buruz euskal gizarte osoari informazioa eta prestakuntza ahalbidetzeko esku-hartzeak sistematizatzen dira, ikuspegi integratzailetik begiratuta. Era berean, gizarte-sentsibilizazioa, presio politikoa eta salaketa publikoak dira eremu egokienak gizarte-taldeen parte-hartzea sustatu eta bideratzeko, inmigrazio-politikari dagokionez.

Kanpo-proiektzioko arloa

2.2.11. Lagundutako garapeneko arloa

Lagundutako garapeneko arloak norabideak biltzen ditu euskal erakundeen kanpoko ekintza kooperatiboari begira. Kanpoko esku-hartze horrek zuzeneko lankidetzak biltzen du, gizarte-erakundeen partaidetza eta EAEn finkaturiko etorkin-taldeen beraien zuzeneko parte-hartzearen bidezko lagundutako garapena tarteko.

3. NORABIDEAK

Arlo bakoitza hainbat norabideren inguruan egituratzen da; erreferentzia-lerrotzat eta orientabidetzat hartzen dira bakoitzean neurri operatiboak zehazteko.

Ildo horretan, hainbat elementuren arteko orekari eusten saiatu gara, idazkuntzari dagokionez:

- ▶ Bere funtzionaltasuna bermatzeko premia Plan hau lantzeko lagundu duten erakunde, sail eta organismoek eginiko proposamenen gida eta bideratzaile gisa.
- ▶ Sentsibiltate, eskumen, ekarpen eta abarren multzo zabalari estaldura eman ahal izateko nahikoa irekiera, proposamen eta neurri horiek zehazteko inplikaturiko instantzien aniztasuna dela-eta.

3.1. ERAKUNDE-ANTOLAMENDUKO ARLOA (96tik 107ra)

- ▶ Inmigratioaren arloan esku hartzeko erreferentzia-sistema bat zeharka antolatzea, ondokoak zehaztuta: organoak, koordinazio-harremanak, parte-hartzea, mailak, eskumen-eremuak eta abar..
- ▶ Etorkinentzako Harrera Sare Publikoa sortzea eta gizarte-ekimen pribatuaren baliabideekin egituratzea.
- ▶ EAE-ko herri-erakundeetako langileei zuzendutako etorkinen gizarteratzearen, giza eskubideen eta inmigratioari buruzko euskal planaren inguruko prestakuntza eta trebakuntza generikoa sustatzea.

3.2. INFORMAZIOA (108tik 119ra)

- ▶ EAEko inmigrazioaren errealitateari buruzko informazioa sortu, zabaldu eta erabiltzeko sistema bateratu bat garatzea.
- ▶ EAEko inmigrazioaren errealitatearen hainbat alderdiri buruzko azterlanak, analisiak eta abar sustatzea.
- ▶ Inmigrazioari buruzko euskal planaren eragina, betetze-maila eta errealitatearekiko egokitzapena etengabe ebaluatzea.

3.3. BERME JURIDIKOAK (119tik 123ra)

- ▶ Funtsezko eskubideekin edo atzerritartasun-izaera juridikoarekin zerikusia duten gai juridikoetarako eskatzen duten atzerritarrei laguntza juridiko kualifikatua (eta, hala badagokio, doakoa) izateko bermea ematea.
- ▶ Etorकिनak atxilotzen direnean jarraipena egiteko eta eskubideak bermatzeko formulak sustatzea
- ▶ Eremu administratibo eta judizialean atzerritarren eskubide zibilak beteko direla bermatzeko interpretazio-zerbitzu egokia ziurtatzea
- ▶ Eskubide zibilen babesean zuzenean inplikaturako langile publikoentzat (ertzaintzat, udaltzaintzat, justizia-administrazioako langileentzat...) giza eskubideen eta atzerritarren eskubideen arloko berariazko trebakuntza-ekintzak sustatzea.
- ▶ Atzerritarren arloko egungo legezko esparrua aldatzeko ekimenak bultzatzea..

3.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA (124tik 129ra)

- ▶ Etorकिनen integrazioa eta parte-hartzea sustatzea herritarren parte-hartze eremuetan: auzo-elkarteak, sindikatuak, kontsumitzaileen elkarteak, jai-batzordeak...
- ▶ Etorकिनen eta hauen elkarten toki-mailako parte-hartze politikoa sustatzea.
- ▶ Etorकिनen arteko asoziazionismoa, elkarten elkarrizketarako ahalmena eta gizarte esku-hartzerako proiektuak autonomiaz garatzeko eta parte hartzeko eskumenak sustatzea

- ▶ Euskal gizarte-mugimenduak giza eskubideen eta, bereziki, nazionalak ez diren pertsonen eskubideen babeserako nazioarteko erakundeetan parte har dezan sustatzea.

3.5. LAN-ARLOA (129tik 143ra)

- ▶ EAEn eremuan laneratze-arloan dauden zerbitzuak, egiturak, eskaintzak, baldintzak eta abar etorkinen artean zabaltzea.
- ▶ Prestakuntza, orientazio eta laneratze programa eta ibilbideen sarbide-baldintzak eta metodologia etorkinen berariazko beharrei egokitzea.
- ▶ Lan-merkatutako sarbidearen eremuan etorkinentzako eta bertako herritarrentzako prestakuntza-programak garatzea.
- ▶ Oinarrizko gizarte-zerbitzuen bitartez harrera eta gizarteratze sarea euskal enplegu-zerbitzuarekin koordinatzea eta inmigrazioari buruzko tokiko planen esparruan barne hartzea, planak ezartzen diren leku guztietan.
- ▶ Aholku eta informazio ekintzak sustatzea atzerritarren kontratazioaren berariazko izapideak egiteko.
- ▶ Lan-eskubideak edo berdintasun-baldintzak urratzen dituzten atzerritarren lan-kontratazioen jarraipena eta salaketa egiteko formulak garatzea.
- ▶ Abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak berritutako urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 39. artikuluan aipatutako atzerriko langileen kopurua finkatzeko EAEn proposamenetan parte hartzea.

3.6. GIZARTERATZEA ETA GIZARTE-BALIABIDEAK (142tik 149ra)

- ▶ Etorkinen artean gizarte-zerbitzuen sistemaren eta dituzten beharrei erantzuteko ekimen publikoko zein pribatuko erakunde eta baliabideen antolamendua eta funtzionamendua zabaltzea.
- ▶ Gizarte-baliabideak EAEn bizi diren etorkinen ezaugarri eta beharrei egokitzeko estrategiak eta neurriak sustatzea.
- ▶ Etorkinen harrera-prozesuetan inplikaturako profesionalen zuzendutako EAEn inmigrazioaren hainbat alderdiri buruzko prestakuntza materialen eta ekintzen sorkuntza sustatzea..

- ▶ Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden etorkinek gobernu-kontseiluak 2003ko uztailan onartutako EAEko gizarteratze-planean aurreikusitako neurriak eskuratzeko aukera sustatzea.

3.7. OSASUNA (150tik 159ra)

- ▶ Etorkinen artean Euskal Osasun Sistemaren sarbide eta antolamenduari buruzko zabalkunde-ekintzak garatzea.
- ▶ Euskal Osasun Zerbitzuko langileen prestakuntzan etorkinentzako osasun-laguntzari lotutako alderdiak txertatzea, emakume etorkinen berariazko beharrak eta eskariak bereziki kontuan hartuta.
- ▶ Osakidetzaren, beste zerbitzu batzuen eta etorkinen elkarten arteko lankidetzaren sustatzea osotasuna bermatzeko eta kulturarteko komunikazioan sakontzeko.
- ▶ Osakidetzaren, etorkinen elkarten, eta bestelako zerbitzu eta eragileen arteko lankidetzaren sendotzea, osotasuna bermatzeari eta kultura arteko komunikazioa sakontzeari begira.
- ▶ Sarbidea eta osasun-laguntza lortzeko baldintzak etorkinen berezitasunei egokitzea.

3.8. ETXEBIZITZA (158tik 163ra)

- ▶ Ohiko etxebizitzaren arloan ezarritako laguntzak eta zerbitzu publikoak osorik eta baldintza-berdintasunean eskuratzeko aukera erraztuko duten ekimenak garatzea
- ▶ Etorkinei etxebizitzak alokairu-erregimenean eskuratzeko aukera emateko eta bizitzeko baldintza egokiak bermatzeko formulak sustatzea.
- ▶ Etxebizitzak gizarte-azpiegiturarako erabiltzeko aukera sustatzea.

3.9. HEZKUNTZA (162tik 173ra)

- ▶ Hezkuntza-sistema kulturarteko errealitateari egokitzeko bidezkoak diren neurriak garatzea.
- ▶ Gazte atzerritarren hizkuntz mailako gizarteratzea bultzatzea, euskararen ikaskuntza bereziki kontuan hartuta.

- ▶ Atzerriko ikasleen Guraso, Tutore eta gizarte-inguruneek eskola-ordezkaritzako organoetan eta ikastetxeen dinamikan parte har dezaten bultzatzea.
- ▶ Ikastetxeetan atzerriko etorkinei euskara eta gaztelania irakasteko aukera sustatzea.

3.10. KULTURARTEKOTASUNA (174tik 185ra)

- ▶ Euskal kultura eta EAEko beste kultura batzuk aldi berean babestu eta garatzeko ekimenak (programak, proiektuak...) bultzatzea..
- ▶ Euskal kulturaren alde lan egiten duten erakundeen eta beste kultura batzuk ordezkatzen dituztenen arteko elkarreragina bultzatzea.
- ▶ Nazionalak ez diren pertsonak euskal kulturaren inguruko jardueren garapenean eta euskal kultura sustatzeko erakunde publiko eta pribatuetan parte har dezaten sustatzea.
- ▶ Atzerritarren artean EAEko bi hizkuntza ofizialen ikaskuntza sustatzea.
- ▶ Euskal erakunde publikoen eta EAEn dauden beste kultura batzuen jatorrizko herrialdeen artean lankidetzeta-lotura informalak edo akordio ofizialak garatzea..

3.11. ESKU-HARTZE OSAGARRIA (184tik 201ra)

- ▶ Etorkinen elkarteek eta, oro har, gizarte zibilak, giza eskubideen arloko berriazko esku-hartze programetan eta bazterkeria eta ahultasun egoeretako esku-hartze programetan parte har dezaten sustatzea, erakunde publikoek eremu hauetan dituzten ekimenen osagarri gisa hain zuzen ere
- ▶ Ahultasun bereziko egoeran dauden etorkinekin lan egiten duten profesionalei eta boluntarioei zuzendutako berriazko prestakuntzako materialak eta prozesuak garatzea.
- ▶ EAEko espetxeetan bizi diren bizi-baldintzen hobekuntza sustatzea eta espetxeetan bizi diren atzerritarren berriazko problematiken babes zurtatzea, gizarteratze-prozesuak bereziki kontuan hartuta.
- ▶ Emakume etorkinek sexu-esplotazioaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dauden premiazko arreta eta laguntza zerbitzuetarako sarbidea –erabatekoa eta normalizatua– izan dezaten sustatzea..

- ▶ Sexu-esplotazioaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarren artean arreta psikologiko, sozial eta juridikoko zerbitzuak zabaltea.
- ▶ Bakarrik dauden gazte atzerritarren arretan osotasuna, jarraipena eta koherentzia bermatzea.
- ▶ Adingabe edo gazte atzerritarren eskubideak ziurtatzeko formulak garatzea..
- ▶ Bakarrik dauden atzerritar gazteak gizartean moldatzeko berriazko programa iragankorren garapena sustatzea.
- ▶ Bakarrik dauden atzerritar gazte eta adingabeen dokumentazioa lortzeko beharrezkoak diren izapide juridikoak arintzen laguntzea.
- ▶ Sasoikako langileei eta horien senideei oinarritzko zerbitzuak emateko koordinazio plan eta mekanismoen garapena sustatzea.
- ▶ Arreta juridiko eta sozialeko zerbitzuak EAEko portuetako ezkutuko bidaiariei zabaltea.

3.12. SENTSIBILIZAZIOA (202tik 213ra)


- ▶ Inmigrazioari buruzko euskal planarekin bat etorriko den politika publiko bat garatzea komunikabideen bitartez.
- ▶ Kulturartekotasunaren aldeko gizarte parte-hartze eta antolaketa babestea.
- ▶ Etorkinak gizarteratzeko prozesuan funtsezkoak diren sektoreei zuzendutako berriazko sentsibilizazio-programak sustatzea
- ▶ Gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta kulturarteko komunikazioko berriazko programak sustatzea, hezkuntza-sistematik bereziki.
- ▶ Hainbat eremutan eta inmigrazioari eta atzerritarren gizarteratzeari lotutako gaien tratamenduan hizkuntza egokiaren erabilera sustatzea.

3.13. LAGUNDUTAKO GARAPENA (212tik 219ra)

- ▶ Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko harremanak garapenerako laguntza-prozesuak eta EAEko etorkinen harrera-prozesuak errazteko estrategia gisa garatzea

- ▶ Garapenerako laguntza-ekimenak deszentralizatzeko formulak garatzea eta toki-mailako administrazio, erakunde eta mugimenduen zeregina indartzea
- ▶ Atzerritarrek beren jatorrizko herrialdeetan garapen-proiektuetan zuzenean parte har dezaten sustatzea.
- ▶ Etorrinek beren jatorrizko herrialdeetara transferentzia ekonomikoak egin eta beren kapitalak jatorrizko zonen garapenari lotutako produktuetan inbertitu ahal izateko finantza-prozedurak sustatzea.

4. EKINTZA-NEURRIAK



ARLOA: ERAKUNDE-ANTOLAMENDUA

Norabidea:

INMIGRAZIOAREN ARLOAN ESKU HARTZEKO ERREFERENTZIA-SISTEMA BAT ZEHARKA ANTOLATZEA, ONDOKOAK ZEHAZTUTA: ORGANOAK, KOORDINAZIO-HARREMANAK, PARTE-HARTZEA, MAILAK, ESKUMEN-EREMUAK ETA ABAR.

Proposamenak

- | | |
|---|---|
| 1 Eusko Jaurlaritzak inmigrazio-arloan dituen eskumenak eta jardun-esparruak arautzea. | ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Inmigrazio zuzendaritza. |
| 2 Euskadiko etorkinen parte-hartze eta gizarteratzerako Foroa sortu, arautu eta garatzea. | ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Inmigrazio zuzendaritza. |
| 3 Erakunde arteko Batzordearen esparruan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Udalerriek eta Aldundiek osatuko duten Euskal Inmigrazio Batzordea bultzatzea: deialdia, koordinazioa... | ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Inmigrazio zuzendaritza. |
| 4 Eusko Jaurlaritzako koordinazio-batzordeetan inmigrazio-arloko neurriak antolatu eta gaineratzea erraztuko duten aldaketak proposatzea. | ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Inmigrazio zuzendaritza. |

ADIERAZLEAK

- ▶ Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egiturari buruzko Dekretua.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Foru Aldundiak.
- ▶ Udalerrriak eta Toki Erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Foroaren sorrerari buruzko Dekretua (200/2002).
- ▶ Osaera, funtzioak eta lan-agenda.
- ▶ Osoko Bilkurako eta Batzordeetako parte-hartzearen arautzea..
- ▶ Sortutako dokumentazioa: aktak, txostenak..

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzekoak.
- ▶ Udalerrriak eta Foru Aldundiak.
- ▶ Sindikatuak.
- ▶ Enpresa-erakundeak.
- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Deialdiak eta gai-zerrendak (urtean hiru gutxienez).
- ▶ Sortutako dokumentazioa: aktak, txostenak...
- ▶ Erakundeen kudeaketarako ekarpenak Erakunde arteko Batzordearen jardueraren ondorioz.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerrriak eta Foru Aldundiak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Batzordeetako gai-zerrendetan barne hartutako proposamenak.
- ▶ Sailen eta atxikitako erakundeen kudeaketarako ekarpenak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.

- 5 Prostituzioari buruzko Planean etorkinen kasuan jarraitutako jardun-ildoak txertatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXE BIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Gizarte ongizateko zuzendaritza.

- 6 Udaletako Gizarte Zerbitzuei eta bestelako gizarte-zerbitzuei buruzko araudian etorkinen arreta eta gizarteratzea zeharka erraztuko duten xedapenak barne hartzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXE BIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Gizarte ongizateko zuzendaritza.

- 7 Etorkinen parte-hartze eta gizarteratzerako Foroan eta, hala badagokio, Sail Arteko Batzordean parte hartzea organo horien jardueran genero-ikuspegia sartzeko proposamenak egitearren.

ERAKUNDE ARDURADUNA
LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE.

- 8 Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Administrazio Orokorren arteko alde biko koordinazio-ekimenak garatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXE BIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/
Inmigratio zuzendaritza.

- 9 Gizarte-eragileekin batzordeetan parte hartzea (etorkin gehien dituzten auzo edo udalerrietan bereziki), lan-ildoak ezartzeko.

ERAKUNDE ARDURADUNA
HERRIZAINGO SAILA/
Herritarren segurtasunerako zuzendaritza.

ADIERAZLEAK

- ▶ Prostituzioari buruzko Planean txertatutako ildoak.
- ▶ Ildoak txertatzearen ondoriozko neurri osagarriak.

2003/2004/2005

○ ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Emakunde.
- ▶ Emakumeen Elkarateak.
- ▶ Etorkinen Elkarateak.
- ▶ Gizarte esku-hartzerako erakundeak.
- ▶ Foru Aldundiak eta Udalerriak (Gizarte Ongizateko Arloak).

ADIERAZLEAK

- ▶ Araudiaren testurako ekarpenak.
- ▶ Udal arlo eta zerbitzuen kudeaketan izandako aldaketak.

2003/2004/2005

○ ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Foru Aldundiak.
- ▶ Udalerriak eta toki-erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Foroan eta/edo Foroko batzorderen batean txertatzea.
- ▶ Sail Arteko Batzordean txertatzea.
- ▶ Egindako proposamenei buruzko txostena.
- ▶ Foroaren eta Batzordearen txostenei gaineratzen zaizkien genero-gomendioak.

2003/2004/2005

● ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Emakumeen elkarateak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Batzorde misto edo antzeko egitura egonkorren sorkuntza.
- ▶ Koordinazio-prozesuari lotutako ekintzak: bilerak, sortutako dokumentazioa, lan-programa...
- ▶ Akordioak, hitzarmenak...

2003/2004/2005

○ ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Foroko Batzordeak.
- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.
- ▶ Foru Aldundiak eta Udalerriak.
- ▶ Etorkinen elkarateak eta etorkinei laguntzekoak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Parte hartutako Batzordeen kopurua.
- ▶ Joandako bileren kopurua.
- ▶ Zuzendaritza hau inplikatzan duten erabakien kopurua.

2003/2004/2005

● ● ●

LAGUNTZAILEAK

<p>10 Migrazio-fluxuak antolatzen eta fluxu horiek EAEko errealitate sozioekonomikora egokitzen laguntzeko batzorde bat sortzea.</p>	<p>ERAKUNDE ARDURADUNA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/ Inmigrazio zuzendaritza.</p>
<p>11 Arrantza-sektorearen esparruan etorkinak barne hartuko dituzten prestakuntza eta laneratze ekimenak koordinatu eta bultzatuko dituen Batzorde bat sortzea.</p>	<p>ERAKUNDE ARDURADUNA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA/ Arrantza eskualdeen garapeneko zuzendaritza.</p>
<p>12 Foroak Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan ordezkari bat izatea.</p>	<p>ERAKUNDE ARDURADUNA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/ Gizarte ongizateko zuzendaritza.</p>
<p>13 Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak Foroan ordezkari bat izatea.</p>	<p>ERAKUNDE ARDURADUNA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/ Gizarte ongizateko zuzendaritza.</p>
<p>14 Haurtzaroaren Behatokiaren ordezkariak Euskal Inmigrazio Batzordean parte hartzea.</p>	<p>ERAKUNDE ARDURADUNA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/ Gizarte ongizateko zuzendaritza.</p>
<p>15 EAEEn bizi diren atzerriko etorkinen arreta juridiko-sozialerako zerbitzuaren (HELDU) jarraipen-batzordean parte hartzea.</p>	<p>ERAKUNDE ARDURADUNA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA/ Giza eskubideen eta justiziarekiko lankidetzarako zuzendaritza.</p>

ADIERAZLEAK

- ▶ Osaera, funtzioak, funtzionamendu-protokoloak...
- ▶ EAEko eskulan-beharrei buruzko urteko txostenak, orokorrak eta sektorialak.

2003/2004/2005

○ ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.
- ▶ Foru Aldundiak.
- ▶ Udalerrriak.
- ▶ Euskal enpresaburuak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Batzordearen eraketa.
- ▶ Lan-agenda.
- ▶ Urteko txostena.

2003/2004/2005

● ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Inmigrazio Zuzendaritza.
- ▶ Sindikatuak.
- ▶ Lurralde Federazioak.
- ▶ Kofradiak.
- ▶ Foroko Lan Batzordea.
- ▶ Udal enplegu-zerbitzuak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Foroko ordezkariaren parte-hartze efektiboa Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan.
- ▶ Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren kudeaketan txertatzen diren Foroko ordezkariaren proposamenak.

2003/2004/2005

● ● ●

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Foroko Batzordeak.
- ▶ Foroaren osoko bilkura.

ADIERAZLEAK

- ▶ Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko ordezkariaren parte-hartze efektiboa Foroan.
- ▶ Foroaren lan-agendan txertatzen diren Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko ordezkariaren proposamenak.

2003/2004/2005

● ● ●

LAGUNTZAILEAK**ADIERAZLEAK**

- ▶ Haurtzaroaren Behatokiko ordezkariaren parte-hartze efektiboa Euskal Inmigrazio Batzordean.
- ▶ Egindako proposamenen txostena.
- ▶ Batzordearen lan-agendan txertatutako gomendioak.

2003/2004/2005

○ ● ●

LAGUNTZAILEAK**ADIERAZLEAK**

- ▶ Parte-hartze efektiboa Batzordean.
- ▶ Batzordeari egindako proposamenen txostena.
- ▶ HELDU zerbitzuaren kudeaketan eta funtzionamenduan txertatzen diren proposamenak eta gomendioak.

2003/2004/2005

● ● ●

LAGUNTZAILEAK

Norabidea:

ETORKINENTZAKO HARRERA-SARE PUBLIKOA SORTZEA ETA GIZARTE-EKIMEN PRIBATUAREN BALIABIDEekin EGITURATZEA.

Proposamenak

- 1 EAeko Toki Erakundeentzako laguntza ekonomikoak ezarri eta aplikatzea udal-mailako harrera-sarea finantzatzeko.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 2 Inmigrazioari buruzko Tokiko Planen lantzea eta aplikazioa sustatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 3 Inmigrazioko teknikariak kontratatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 4 EAEn bizi diren atzerriko etorkinen arreta juridiko-sozialerako zerbitzua (HELDU) Hiru Lurralde Historikoetan sortu eta martxan jartzea, Abokatuen Elkargo Ofizialekin hitzartuta.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

ADIERAZLEAK

- ▶ 155/2002 Dekretua.
- ▶ Urteko deialdien oinarriak.
- ▶ Laguntza-eskaeren xede diren jarduerak, proiektuak eta abar: kopurua eta mota.
- ▶ Emandako laguntzen zenbatekoa.
- ▶ Jarduera, proiektu eta abarren garapenaz arduratutako erakunde eta pertsonen profila.
- ▶ Hartzaileen banaketa ondokoan arabera: sexua, adina, jatorria eta abar.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerriak eta Toki Erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Onartutako Tokiko Planen kopurua.
- ▶ Planen ezarpenetik aurrera sortutako baliabide eta zerbitzu berriak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerriak eta Toki Erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Kontratazio-kopurua.
- ▶ Inmigrazioko teknikarien eta babestutako eta 1.000 biztanletik gorako udalerrietan koordinatutako profesional, zerbitzu, erakunde eta abarren arteko ratioa.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerriak eta Toki Erakundeak .

ADIERAZLEAK

- ▶ Toki-erakundeek sinatutako jardun-protokoloen kopurua.
- ▶ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik etorrira lagundutako pertsonen kopurua eta ezaugarriak.
- ▶ HELDU zerbitzuaren aldizkako txostenak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerriak eta Toki Erakundeak.
- ▶ Abokatuen Elkargo Ofizialak.
- ▶ Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza.

- 5 Kulturarteko Hezkuntza eta Bitartekotza Ekimenak Koordinatzeko Zentroa sortu eta garatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 6 Inmigrazioko Toki Planak garatzen dituzten Toki Erakundeen artean koordinatzeko mekanismoak ezartzea, inmigrazioko teknikarien arteko koordinazioaren bitartez funtsean.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 7 Eusko Jaurlaritzaren eta Udalerrien eta Foru Aldundien artean inmigrazio-arloan jarduteko protokoloak eta hitzarmenak ezartzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

Norabidea:

EAE-KO HERRI-ERAKUNDEETAKO LANGILEEI ZUZENDUTAKO ETORKINEN GIZARTERATZEAREN, GIZA ESKUBIDEEN ETA INMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL PLANAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA GENERIKOA SUSTATZEA.

Proposamenak

- 1 EAEko Administrazio Orokorreko langileei zuzendutako prestakuntza-ekintza pilotu bat diseinatu eta kudeatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO
SAILA/HAAE: PRESTAKUNTZA-
ZERBITZUA.

ADIERAZLEAK

- ▶ Esleitzeko lehiaketaren oinarriak.
- ▶ Lehiaketan aurkeztutako proiektuen kopurua eta mota.
- ▶ Zerbitzuaren kudeaketa-plana.
- ▶ Jardueraren urteko txostena.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.
- ▶ Foru Aldundiak eta Udalerriak.
- ▶ Etorकिन elkarteak eta etorkinei laguntzekoak.
- ▶ Gizarte, kultur eta hezkuntza ekintzari lotutako erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Komunikazio eta koordinazio protokoloa.
- ▶ Lan-agenda.
- ▶ Txostenak eta gomendioak.
- ▶ Txostenak eta gomendioak zabaltzeko ekintzak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerriak eta Toki Erakundeak.
- ▶ Etorकिन elkarteak eta etorkinei laguntzekoak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Hitzarmen-kopurua.
- ▶ Hartutako konpromisoak.
- ▶ Hitzarmenetan oinarrituta sortutako planak, programak eta proiektuak.
- ▶ Hitzarmenen onuradunen ezaugarriak: adina, sexua, jatorria eta abar.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Foru Aldundiak.
- ▶ Udalerriak eta Toki Erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Aurreikusitako / egindako ekintzen kopurua.
- ▶ Parte-hartzaileen kopurua ondokoan arabera: sexua, adina, lanbide-profila eta abar.
- ▶ Parte-hartzearen tasa ondokoan arabera: Administrazio mailak, sektoreak, zerbitzuak, zona eta abar.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Inmigrazio Zuzendaritza.
- ▶ Etorकिन elkarteak eta etorkinei laguntzekoak.
- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.

- 2 EAEko Administrazio Orokorreko langileei zuzendutako prestakuntza-ekintza pilotuaren diseinua eta emaitzak baloratzea eta, bidezkoa izanez gero, prestakuntza-ekintza hori 2004an eta 2005ean errepikatzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA / HAAE: PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA.

- 3 Udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileentzat eta etorkinen harrera eta gizarteratze prozesuetan inplikaturako beste pertsona batzuentzat prestakuntza-ikastaroak eskaintzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 4 Ertzainei eta udaltzainei polizia administratiboari eta atzerritarren arloari lotutako prestakuntza-moduluak ematea (oinarrizko, maila-igoerako eta espezializazioko ikastaroak).

ERAKUNDE ARDURADUNA

HERRIZAINGO SAILA/EUSKAL HERRIKO POLIZIAREN IKASTEGIA.

- 5 Inmigrazioaren fenomenoan eta etorkinen gizarteratzean etengabe eguneratzea Saileko arduradun politikoei eta ertzainek eguneroko lanean eremu honetan hartu beharreko erabakien kasuan erantzuteko elementuak lortzeko.

ERAKUNDE ARDURADUNA

HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDEAREN KABINETEA.

ADIERAZLEAK

- ▶ Aurreikusitako / egindako ekintzen kopurua.
- ▶ Prestakuntza-eskaeren kopurua.
- ▶ Parte-hartzaileen kopurua ondokoen arabera: sexua, adina, lanbide-profila eta abar.
- ▶ Parte-hartzearen tasa ondokoen arabera: Administrazio mailak, sektoreak, zerbitzuak, zona eta abar.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Inmigrazio Zuzendaritza.
- ▶ Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzekoak.
- ▶ Eusko Jaurlaritzako Sailak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Aurreikusitako / egindako ekintzen kopurua.
- ▶ Eskaintzaren estaldura ondokoen arabera: zona, zerbitzuak eta abar.
- ▶ Prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileen kopurua.
- ▶ Parte-hartzearen tasak ondokoen arabera: adina, lanbide-profila, zona eta abar.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Udalerrriak eta Toki Erakundeak.
- ▶ Prestakuntza-erakundeak eta beste GKE batzuk.

ADIERAZLEAK

- ▶ Emandako moduluen kopurua.
- ▶ Moduluetan parte hartzen duten Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako ikasleen kopurua.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK****ADIERAZLEAK**

- ▶ Prestakuntza-jardueretako asistentzien kopurua.
- ▶ Argitaratutako artikuluen kopurua.
- ▶ Egindako polizia-instrukzioen zirriborroen kopurua.
- ▶ Idatzitako erantzun parlamentarioen kopurua.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

ARLOA: INFORMAZIOA

Norabidea:

EAE-KO INMIGRAZIOAREN ERREALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA SORTU, ZABALDU ETA ERABILTZeko SISTEMA BATERATU BAT GARATZEA.

Proposamenak

- | | |
|--|---|
| <p>1 Inmigratioaren Euskal Behatokia sortu eta garatzea.</p> | <p>ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/Inmigratio zuzendaritza.</p> |
| <p>2 Inmigratio Zuzendaritzarekin eta Inmigratioaren Euskal Behatokiarekin lankidetzak-akordio bat egitea EAEko migratio-prozesuari buruzko datuak lortu, landu eta zabaltzeko, guztia ikuspegi ebolutibo batetik: aholkularitza tekniko, metodologia estatistikoa eta abar.</p> | <p>ERAKUNDE ARDURADUNA
OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA/EUSTAT.</p> |
| <p>3 Inmigratioaren Euskal Behatokiaren, EUSTATen, Foru Aldundien eta Toki Erakundeen arteko lankidetzak-protokolo bat diseinatzea EAEko inmigratioaren errealitateari buruzko datuak biltzeko.</p> | <p>ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/Inmigratio zuzendaritza.</p> |
| <p>4 Inmigratioaren Euskal Behatokiari datuak eman behar dizkieten Sailentzat edo administrazio-organoentzat informatika-programa komun bat sortzea.</p> | <p>ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA/Inmigratio zuzendaritza.</p> |

ADIERAZLEAK

- ▶ Egitura, osera eta lan-estrategia.
- ▶ Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren kudeaketa-plana.
- ▶ Jardueren urteko txostena.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Unibertsitateak.
- ▶ Bestelako erakunde publiko eta pribatuak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Akordioan jasotako konpromisoak.
- ▶ Azterlan, azterketa eta abarren kopurua eta kalitatea.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK****ADIERAZLEAK**

- ▶ Protokoloan jasotako konpromisoak.
- ▶ Datuak bildu eta kudeatzeko prozedurak.
- ▶ Kontuan hartutako informazio-esparruak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Inmigrazioaren Euskal Behatokia.
- ▶ EUSTAT.
- ▶ Foru Aldundiak.
- ▶ Toki Erakundeak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Programaren ezaugarri teknikoen ezarpenari eta sorkuntzaren esleipenari lotutako ekintzak.
- ▶ Erremintaren erabileraren inguruko informazio eta aholku ekintzak.
- ▶ Hobetzeko eta erabiltzaileen behar eta berezitasunei egokitzeko ekintzak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ EUSTAT.
- ▶ Sailak eta bestelako administrazio-organismoak.

- 5 Inmigratioaren Euskal Behatokiaren, EUSTATen eta Herrizaingo Sailaren artean lankidetzatza-protokolo bat egitea Ertzaintzak eta bidezko erakunde ofizialek aldizka informazio estatistikoa lortu eta proposatu ahal izateko eta, era honetan, zona bakoitzaren errealitate soziokulturalaren arabera plan zehatzak diseinatu ahal izateko.

ERAKUNDE ARDURADUNA

HERRIZAINGO SAILA/SEGURTASUN SAILBURUORDEAREN KABINETEA.

- 6 Inmigratioari eta gizarteratzeari buruzko fondo dokumental bat sortzea, polizia-lanaren berezitasunei egokituta egongo dena, migrazio-fenomenoaren hainbat alderdiri lotutako lanbidezereginak dituzten teknikariak eta ertzainak beti eguneratuta egotea erraztuko duena eta, aldi berean, ikertzaileek alor honetan egindako lana bultzatzeko balio izango duena.

ERAKUNDE ARDURADUNA

HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDEAREN KABINETEA.

- 7 Informazio eskuragarria euskarri informatikoan mantentzea, aldagai nagusien arabera: atzerriko etorkinak sexu, adin, eremu geografiko, nazionalitate, ikasketamaila eta abarren arabera (balio absolutuak, portzentajeak, tasak, grafikoak, serie historikoak eta abar).

ERAKUNDE ARDURADUNA

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA/EUSTAT.

ADIERAZLEAK

- ▶ Lankidetzeta-protokoloan jasotako konpromisoak.
- ▶ Eskatutako / proposatutako informazio-esparruak.
- ▶ Hitzarmenean kontuan hartutako informazio-eskuragarritasunaren ondoriozko plangintza eta kudeaketarako ekarpenak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Inmigrazioaren Euskal Behatokia.
- ▶ EUSTAT.

ADIERAZLEAK

- ▶ Barne hartu beharreko arloen kopurua eta mota.
- ▶ Eskuratutako dokumentu eta argitalpenen kopurua.
- ▶ Kontsulten eta maileguen kopurua eta ezaugarriak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK****ADIERAZLEAK**

- ▶ Administrazioak, gizarte edo kultur esku-hartzerako erakundeek azterlan eta azterketei lotuta egindako eskari eta sarbideen kopurua eta banaketa.
- ▶ Organismo, erakunde eta gizarte, kultur eta hezkuntza esku-hartzerako erakundeek informazio-sistemari egindako ekarpenak.
- ▶ Proposamenen txostena, ondorioak eta gomendioak (urtekaria).
- ▶ Proposamenak planen, programen, zerbitzuen, deialdien eta abarren diseinuan txertatzea.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- 8 Migrazioen Nazioarteko Erakundearekin (MNE) hitzarmen bat egitea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 9 Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Eusko Jaurlaritzaren inmigratioari buruzko informazioaren arloko atari birtualean duen gunea mantendu eta eguneratzea:
erakunde-informazioa, baliabideak, azterlanak, ekimenak, laguntzak eta abar.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

Norabidea:

EAE-KO INMIGRAZIOAREN ERREALITATEAREN HAINBAT ALDERDIRI BURUZKO AZTERLANAK, ANALISIAK ETA ABAR SUSTATZEA.

Proposamenak

- 1 EAEko etorkinek lortutako gizarteratze-maila modu objektiboan hartzeko aukera emango duen adierazle eta tresna sistema bat finkatzeko azterlan bat egitea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO
SAILA/Inmigrazio zuzendaritza.

- 2 Atzerriko inmigratioa martxan dauden inkesta soziodemografikoetan azterketa-aldagai gisa barne hartzea.

ERAKUNDE ARDURADUNA
OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO
SAILA/EUSTAT.

ADIERAZLEAK

- ▶ Hitzarmen horrek kontuan hartzen dituen alde biko konpromisoak.
- ▶ Hitzarmena zabaltzeko ekintzak, Eusko Jaurlaritzari, erakundeei, elkarteei eta abarri zuzenduak.
- ▶ Informazioa zabaltzeko eta erakundeek eta gizarte-mugimenduek hitzarmenaren esparruan parte hartzeko prozedurak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Migrazioen Nazioarteko Erakundea (MNE).
- ▶ Gobernu eta Erakundeak.
- ▶ Elkarrekin eta gizarte-eragileak.

ADIERAZLEAK

- ▶ Mantentze eta eguneratze ekintzak.
- ▶ Informazio-alorrak, loturak, zerbitzuak eta abar: kopurua eta motak.
- ▶ Sarbideen urteko kopurua.
- ▶ Eskaririk ohikoenak.
- ▶ Erakundeen, gizarte-ekimeneko erakundeen eta abarren ekarpenak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa (AEB).

ADIERAZLEAK

- ▶ Azterlanaren ezaugarri teknikoak.
- ▶ Organismo eta erakunde laguntzaileen kopurua eta mota.
- ▶ Sortutako adierazle, tresna eta prozeduren sistema.
- ▶ Txosten partzialak, kopuruak eta abar.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Inmigratioaren Euskal Behatokia.

ADIERAZLEAK

- ▶ Aldagaiak hautatzeko eta inkesta eta azterlanetan barne hartzeko irizpideak.
- ▶ Inkesta-kopurua.
- ▶ Aldagaien kopurua eta mota.
- ▶ Laburpenen txostenak eta gomendioak.

2003/2004/2005

**LAGUNTZAILEAK**

- ▶ Inmigrazio Zuzendaritza.
